Goienka2a

'BANEKI!' GOITB-KO GAZTETXOEN LEHIAKETA

KIROLA: ALOÑAKO MENDI MARATOI ERDIA JOKATUKO DA DOMEKAN /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko apirilaren 29a • V. urtea • 197. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

DEBAGOIENA

Ibarreko euskal eskola publikoek badute webgunea /4

ALBERTO RODRIGUEZ / MEDIKUA

"AEBko ohiturei kasu egiten diegunetik, asko gehitu da bihotzeko gaixotasunen arriskua" **/7**

BERGARA

Pazkoetan jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dute /6

ASTEKO GAIA: 2005-2008 PLAN ESTRATEGIKOA

Euskalanek helburu berriak ditu

Euskalan elkarteak aro berri bat hasi du, eta horren ardatza 2005-2008 tarterako Plan Estrategikoa da. Funtsezko helburua hasierako berbera da –hots, lan munduan euskararekiko sentsibilizazioa indartzea–, baina hasierako helburuak bete ditu, eta beste helburu estrategiko batzuk ezarri ditu orain. Horiek aurkeztu zituen joan den martitzeneko batzar orokorrean.

Aurrerantzean, Debagoien osoko enpresekin lan egingo du Euskalanek, eta dauden Euskara Planak indartu eta berri batzuk ezartzea da helburuetako bat. Bergaran eta Elgetan hutsunea sumatu dute, eta han eragingo dute gehiago. **/2-3**

IBAN ARANTZABAL

Eskola Txikien jaia aurkeztu dute Elgetan

Ekainaren 12an Elgetan egingo den Eskola Txikien jaia aurkeztu zuten atzo, eguena, Elgetan. Jai horretako aldarrikapen garrantzitsuena txikitasuna izango da; izan ere, elgetarrek garbi dute eskola txikiek bizirik badiraute, herri txikiek ere bizirik iraungo dutela. 2.000 lagun inguru aurreikusten dituzte ekainaren 12ko jaian, eta, guztia antolatzeko, herritarren inplikazioa handia izan dela azpimarratu zuten aurkezpenean. Jaia egun osokoa izango da. 10:00etan hasiko da eta, besteak beste, honakoak egongo dira: bazkaria, jolasak eta Tapia eta Leturiaren emanaldia. Orraingoz, berotzen joateko, jaialdi bat antolatu dute asteburu honetan, zapatuan, 19:00etan. Besteak beste, Eskola Txikien eguneko kantua abestuko dute herriko umeek.

Amaia Arrieta: "Oso agerian geratu da epaiketa politikoa zela"

Bi izan ezik, Jarrai-Haika-Segi sumarioan auzipetutako gazte guztiak kalean dira eguaztenaz geroztik. Gazteek oso pozik hartu dute albistea. Baita penaz ere, barruan geratu direnengatik. Era berean, epaiketaren zentzugabekeria salatu dute. Epaitutako bat Amaia Arrieta arrasatearra da. Hark GOIENKARIAri esan dioenez, "oso agerian geratu da ez dagoela ezer; epaiketa politikoa izan dela". **/4**

'Asteleheneko Goienkaria', astelehenean

Jaieguna izan arren, astelehenean banatuko da, hilaren 2an, betiko moduan, *Asteleheneko Goienkaria*.

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a

Euskalanen etapa berria

Helburu berri batzuk dira dauden euskara planak indartzea eta Bergara eta Elgetan gehiago eragitea

LEIRE KORTABARRIA

Aro berri eta garrantzitsu bat hasi da Euskalan elkartearendako. Izan ere, joan den martitzenean, hilak 26, aurkeztu zuen 2005-2008 eperako Plan Estrategikoa. "Orain arte izan dugun ibilbidearekiko erabateko aldaketa da, kuantitatiboa eta kualitatiboa", dio Inaxio Garro orain arteko elkarteko presidenteak.

Euskalanen funtsezko helburua sortu zeneko berbera da, 1996. urtean: lan arloan euskara indartzea eta normalizatzea, enpresak Euskara Plan bat ezar dezaten sentsibilizatuz. Hala ere, hori lortzeko bere zeregina eta helburu zehatzak askoz zorrotzagoak dira orain.

Horrekin batera, Euskalanek bere barne egitura berritu du. Batetik, figura berri bat sortu du, kudeatzailea, bere asmoak aurrera eramateko; bestetik, Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta egitura ere berriak dira.

Aldaketa horien guztien berri eman zieten bazkideei joan den martitzeneko batzar nagusian.

DEBAGOIENERA ZABALDU

Euskalanen Plan Estrategikoak zeregin berri bat definitzen du: Debagoieneko lan-munduan euskararen erabilera areagotzea, eta lan-harremanak gehienbat barrura begira dituzten enpresetan euskara planak sustatu eta koordinatzea. Horrek hainbat berritasun dakartza: batetik, Euskalanek bere esparrua zabaltzen du Debagoien osora; bestetik, enpresa motari dagokionez, kooperatibez gain, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak eta lan-sozietate anonimoetan eragingo du. Enpresen izaera ere mugatu du: enpresa industrial eta zerbitzu-enpresekin bakarrik jardungo du Euskalanek, 15 langile edo gehiagokoekin.

Helburu zehatzak ere berritu egin ditu Euskalanek: "Iaz ikusi genuen hausnarketa egiteko beharra zegoela. Hasierako helburu guztiak beteta zeuden, eta gure esparru eta ikuspegi berriak finkatu behar genituen", azaltzen du Inaxio Garrok. Horren eskutik etorri dira helburu berriak: "Dagoeneko euskara plana duten enpresetan horien iraupena bermatuko dugu, eta enpresa gehiagotan planak egin daitezen bultzatuko ditugu", gaineratzen du Garrok. Helburu estrategiko bat da 13 plan errotzea eta 20 finkatzea, abian dauden planak hobetzea eta enpresetan 30 plan berri ezartzea.

Hausnarketak agerian utzi zituen Euskalanen lan esparruko indarrak eta hutsuneak, eta horietan eragin beharra. Hain zuzen, ibarreko kooperatiba gehienek badute euskara plan bat: 36tik 27k. Aldiz, bestelako enpresak 81 dira eta bakarrik bederatzik dute euskara plan bat.

Beste hutsune bat geografikoa da: hain zuzen, Bergaran, 38 enpresetatik hiruk bakarrik dute plana, eta Elgetan, bederatzi

Zuzendaritzaren babesa

Enpresetako zuzendaritzaren inplikazioa "ezinbestekoa" da euskara plan batek arrakasta izango badu. Hori da Enpresa Kudeaketarako Ezagutzaren Cluster Elkarteko Euskera eta Kudeaketa foroaren ondorio bat. Foro horrek oraintxe argitaratu du *Euskera enpresaren kudeaketan: gakoak eta esperientziak* lana. Hainbat esperientzia aztertzen ditu lan horrek, tartean Eskola Politeknikokoa.

Beste ondorio bat da euskara gutxiago erabiltzen dela kudeaketan bizitzako beste arloetan baino, baina gero eta erakunde gehiagok egiten dutela horren aldeko apustua. Gaineratzen du: "Euskara erabiltzearen alde edo aurka egiten badute ere, beharrezkoa da enpresek hausnarketa egin dezaten euskarak zein leku bete behar duen erabakitzeko".

LEIRE KORTABARRIA

Errukane Aperribai kudeatzailea, Inaxio Garro presidente ohia eta Imanol Barrenetxea-Arando batzordekide ohia.

"Orain arteko ibilbidearekiko aldaketa handia da, kuantitatiboa eta kualitatiboa"

"Enpresei eta erakundeei konpromiso handiagoa eskatuko diegu"

enpresatik batek ere ez du. Hori dela eta, alde batetik, kapital-enpresetan eragin nahi dute, eta sindikatuen laguntza dute horretarako; bestetik, Bergara eta Elgetan euren presentzia indartuko dute.

ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztu zituzten martitzenean. Kideak aukeratzeko modua berria da: orain arte, batzordeko kideak norberaren konpromisoagatik zeuden hor. Aurrerantzean, ordea, euren erakundeetako ordezkari moduan egongo dira. Jon Aperribai da presidente berria, eta Fagor, Ulma, Ikerlan, Emun, ELA, LAB eta Mankomunitateko ordezkariak daude.

Euskalanen estrukturako beste berritasun garrantzitsua kudeatzailearen postua da, sortu berria. Orain arte, pertsona batek ziharduen egunean bi ordu eta erdiz. Kudeatzaileak egun osoko lan jarduera izango du, eta bere betebehar nagusia izango da Zuzendaritza Batzordearen helburuak aurrera eramatea.

Berritasun guztioi aurre egiteko, Euskalanek asmo handiko aurrekontua aurkeztu zuen. Iaz 5.000 euroz azpiko sarrera eta irteerak izan bazituen, aurten 25.000 euroko aurrekontua du. Bai enpresei, baita Debagoieneko udalei zein Foru Aldundiari ere, inplikazio maila handiagoa eskatuko die Euskalanek. Hain zuzen, enpresetatik 6.000 euro espero dituzte; gainerakoa erakunde publikoetatik eskuratuko dute, eta baikor azaldu ziren elkartekoak enpresa eta erakundeen erantzunaz: "Guk euskara alorrean ekarpena egiten diegun bezala, konpromiso handiagoa eskatzen diegu orain".

COPRECI

COPRECI, KOOP. ELK.
2005EKO OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra, Gesalibarko Aita Menni ospitalean, Areto Nagusian, egingo da 2005eko maiatzaren 6an, 15:00etan lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 15:30ean, egun eta toki berean, hurrengo EGUNEKO GAI ZERRENDAren arabera:

GAI ZERRENDA
1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa
2. Memoriaren irakurtzea eta onartzea
   2.1. 2004ko gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2005eko Gestio Plana eta Plan Estrategikoaren politika eta estrategia orokorrak onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2004ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5. 2004ko Emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. Kooperatibaren Estatutu Sozialaren 11, 44, 51 eta 53 Artikuluen aldaketa
8. Kooperatibaren Barne Erregelamenduaren 33 eta 62 Artikuluen aldaketa
9. Kooperatibaren Barne Erregelamenduko 68. artikuluari buruzko aplikazioa. 1/2005eko Araua
10. Heziketa eta kooperatiba Sustapeneko Fondoa aplikatzeko irizpideak. 2/2005eko Araua
11. Entitateen gaiak
    11.1. MCC
    11.2. Lan Kide Aurrezkia
    11.3. Lagun-Aro
12. Kanpoko Auditoreak berritzea
13. Kontseilu Errektorea berritzea
14. Kontseilu Soziala berritzea
15. Eskariak eta itaunak

Kontseilu Errektoreko Idazkaria
2005eko apirilaren 15ean

Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

JON DORRONSORO / PRESIDENTEA

"Gogoz dabiltza langileak euskaraz jarduteko"

Fagorren lan egiten du Jon Dorronsorok, 30 urteko arrasatearrak. Joan den martitzenetik aurrera, bera da Euskalan elkarteko presidentea. Urte erdi darama Euskalanen.

Zeintzuk dira zure helburu nagusiak, presidente berri zaren aldetik?

Urte bete egingo dut kargu honetan, eta orain arte presidente izandako Inaxio Garrok egindako lanaren parekoa egin gura dut. Funtsean, Plan Estrategikoko helburu berriak aurrera eramango ditut.

Zelakoa da euskararen egoera lan munduan?

Orain urte batzuk baino hobeto gaude. Gure indar handienak dira enpresatan Euskara Planak ezarri direla eta jendea gogoz dabilela lanean euskaraz jarduteko.

D ereduko ikasleen euskara maila ez ei da behar bezain ona. Lantegian hori konpentsatu daiteke?

Guk, Unibertsitatean, euskaraz ikasteko aukera gutxi izan genuen, eta orain gehiago dago, nahiz eta hobetu behar den. Gazteak euskaraz ikasita etortzen dira lantegira, eta ez luke horretan arazorik egon behar. Motibazioa ere erakusten dute.

ERRUKANE APERRIBAI / KUDEATZAILEA

"Hasi berria naiz, eta erronka bat da niretako"

Errukane Aperribai (Arrasate, 1970) Euskalaneko kudeatzailea da. Euskalanen estrukturan kargu berria da hori.

Zein izango da zure lana?

Euskalanen Plan Estrategikoaren kudeaketa orokorra egingo dut. Horrez gain, parte-hartzaile guztiekin koordinazio lanak egingo ditut.

Enpresekin hartu-eman zuzena izango duzu?

Bai, hori izango da nire betebehar bat, Zuzendaritza Batzordeko kideekin batera. Baina ez bakarrik enpresekin; Udalekin, sindikatuekin… ere hartu-emana izango dut, hauek ere gure Plan Estrategikoan parte-hartze zuzena dutelako.

Beste zeregin bat izango da zenbait herritako udal teknikarirekin lana koordinatzea. Arrasaten edo Bergaran kasu, Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak ditu abian, eta ezinbestekoa izango da lanak koordinatzea.

Lan honetan berria zara; ez, ordea, euskalgintzan.

Bai. Euskalan ezagutzen dudanetik, oraingoa aurrerapauso handiena da, eta orain hasi berri dudan lana erronka bat da niretako. Euskalgintzan ibilia naiz, aisialdian, eta sailez aldatzea bezalakoa izan da.

Mobiliario ARENAZA
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Enpresentzako %100-ean diruz lagundutako ikastaroak
Etengabeko formazio eredu berria
AKADEMIA BASTIDA
• Kalitatea
• Ingurugiroa
• Laneko arriskuen prebentzioa
• Informatika
• Disenua
• Gestioa
• Hizkuntzak
• Giza baliabideak
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es
Baita zure enpresan bereziki egokitutako ikastaroak

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a

GOIENKARIA

Hiltegia Bizirik plataformak aurkeztutako proposamena eztabaidatuko dute datozen bi asteotan ibarreko udaletan.

Mankomunitateak atzeratu egin du hiltegiaren gaineko erabakia

Ganaduzaleek hiltegiaren gaineko mozioak aurkeztu dituzte udaletan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Debagoieneko Mankomunitateak ohiko batzarra egin zuen eguaztenean Oñatiko udaletxean. Han, besteak beste, hiltegiaren arazoa izan zuten hizketagai. Ibarreko bidaiarien garraioendako geltokiaren gainean ere egin zuten berba.

Oñatiko udaletxean batutako udaletako ordezkariek zerbitzu nagusiez, lurralde antolamenduaz, ingurumenaz, garapen ekonomikoaz eta hiltegiaz jardun zuten, besteak beste.

Hiltegiaren gaiak nahikoa hauts harrotu du azken aldian, eta Hiltegia Bizirik plataformak honen gainean aurkeztutako proposamena eztabaidatu behar zuten Oñatiko batzarrean. Hala ere, eztabaida hori atzeratzea erabaki zuten. Orain, 15 eguneko epea izango da ibarreko udaletan gaiari buruz hitz egiteko. Ondoren, maiatzaren 11n ezohiko batzarra egingo du Mankomunitateak, eta han jakinaraziko dute Hiltegia Bizirik plataformaren proposamenari zein erantzun ematen dioten.

Bestalde, ibarreko ganaduzaleek mozioak aurkeztu dituzte Arrasateko eta Oñatiko udaletan Mankomunitateak hiltegiaren zerbitzua eskaintzen eta kudeatzen jarrai dezala eskatuz. Horretarako, abere ustiategien jabeek diote "legeen arabera hiltegia udalaren eskumena den zerbitzu publikoa dela, eta baita funtsezko zerbitzua ere". Arrasateko mozioa 52 ganaduzalek sinatu dute; Oñatikoa, 161ek. Gainera, jakinarazi dute ibarreko gainontzeko herrietan ere aurkeztuko dituztela mozioak.

Udaletan eztabaidatu eta gero, maiatzaren 11n erabakiko da hiltegiaren auzia

GELTOKIA

Hiltegiaren gaia hurrengo bilera baterako utzi zuten arren, erabaki zuten zeinek egingo duen Debagoieneko bidaiarien garraioendako geltokiaren azterketa: LKS enpresa arduratuko da horretaz. Aztertuko dute, batetik, nolakoa izango den geltokia: besteak beste, zein garraiobide elkartuko diren han –autobusak, autoak, tranbia, abiadura handiko trena...–; bestetik, geltoki horren kokapena zehaztea izango da azterketaren helburua.

INGURUMENA

Ingurumenari dagokionez, hainbat zerbitzu eta lan enpresa jakin batzuei esleitzeko erabakia hartu zuten bileran. Bergara eta Oñatiko Garbiguneetan aldi baterako biltegiak Construlan S.L. enpresak eraikiko ditu; Epeleko zabortegiko azterketa Ikerlurrek egingo du; Juan Jose Arregi arduratuko da paper eta kartoi salmentaz eta, azkenik, Composgunek inausketa eta lorezaintzako hondakinak kudeatuko ditu.

Oso positibotzat jo dute gazte auziperatuek aske uztea

Gazteen ustez, "argi geratu da epaiketa politikoa zela"

GOIENKARIA

Bi ezik, Jarrai-Haika-Segi sumarioan auziperatutako gazte guztiak kalean dira eguaztenaz geroztik. Gazteek oso pozik hartu dute albistea. Baita penaz ere, barruan geratu direnengatik. Era berean, epaiketaren "zentzugabekeria" salatu dute.

Bukatu da epaiketa. Eguaztenean. Eta egunean bertan utzi zituzten aske sumarioan inputatutako 14 gazteetatik 12. Beste biak bestelako kausa batzuk dituztelako utzi dituzte kartzelan.

Amaia Arrieta arrasatearra inputatuta dago epaiketa horretan. Adierazi digu oso une hunkigarria izan zela: "Gehienbat negarrak izan ziren, izan ere, bi barruan geratzen dira. Gazi-gozoa izan zen: emozioa, poza, pena besteengatik... dena nahastuta".

Gaineratu digu argi geratu dela zein motako epaiketa izan den: "Oso agerian geratu da ez dagoela ezer; argi geratu da epaiketa politikoa izan dela eta orain ez dakitela nondik oratu. Argi geratu da ezin dutela ezer frogatu. Hiru hilabeteotan ez dute ezer frogatu".

Halaber, gazteak askatzearen gaineko irakurketa positiboa egin du: "Eskatzen digute hamar urteko zigorra, ustez ETAkoak izatearren; hori betetzeko asmorik balute, ez gintuzten kalean utziko".

Sententzia hilabete barru-edo espero dute; abokatuek absoluzioa eskatu dute gazteendako

Goieskolak webgunea du: 'www.goieskola.net'

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoen elkarteak, Goieskolak, *www.goieskola.net* webgunea abiarazi du. Eskola bakoitzaren proiektuen, baliabideen, ezagutzaren, zerbitzuen eta bestelakoen gainean informazioa ipini dute ikusgai. Webgunea Goieskolaren proiektua gizarteratzeko erreminta izatea gura dute; esaterako, ikastetxeen artean hezkuntza proiektuak trukatzeko, irakasle, guraso eta ikasleen arteko harremanak sendotzeko eta teknologia berriak hobeto erabiltzeko balioko du. /U.M.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Mundumira munduko kulturen jaia egingo dute ekainean Arrasaten

'Euskal Herria' aldizkariak eta Mankomunitateak antolatu dute

IRATI AGIRREAZALDEGI

Munduko kulturen jaialdia egingo dute Arrasaten, ekainaren 10, 11 eta 12an. *Euskal Herria* aldizkariak, antolatu du jaialdia Mankomunitatearen laguntzaz. Besteak beste, musika, mendi irteerak, azokak eta kale animazioa izango dira.

GOIENKARIA

Gari musikariaren emanaldia iragarrita dago Arrasaten ekainerako.

Euskal Herria aldizkaria da Mundumira jaialdiaren antolatzailea, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera. Mendia, kultura, natura eta bidaiak dira *Euskal Herria* aldizkariaren ardatz nagusiak eta, jaialdi honen bidez, horiek guztiak batu nahi dituzte. Horretarako, Arrasate aukeratu dute antolatzaileek. Jaialdia ekainaren 10, 11 eta 12an egingo dute.

Euskal Herria aldizkaria *El Mundo de los Pirineos* aldizkariarekin anaituta dago. Azken honek badu eskarmentua Pyrene, Pirinioetako jaialdia antolatzen. "Jaialdi hauen arrakastak eta irakurleen erantzunak bultzatu gintuen gure ilusioa Euskal Herriko kaleetan egi bihurtzen saiatzera. Horrela sortu da Mundumira jaialdiaren ideia", esan dute antolatzaileek.

NATURA ETA MUSIKA

Debagoieneko Mankomunitateak, Mundumira jaialdiarekin, ibarreko natur ondarea ezagutaraztea du helburu. Horretarako, mendi irteerak, natur eta kultur ibilbideak... antolatuko dituzte. Besteak beste, Udalatx eta Kurtzebarri mendiak igotzeko aukera eskainiko dute; baita Oñatiko Unibertsitatea, Bergarako gune historikoa, Leintz Gatzagako Gatzaren museoa, Eskoriatzako Ibarraundi museoa eta Antzuolako errotak ikusteko ere.

Horretaz gain, festaren erdigunean, Arrasaten, artisau eta gastronomia azokak, kale animazioa, umeendako ekintzak eta musika egongo dira.

Besteak beste, ibarreko natur eta kultur ondarea ezagutaraztea du helburu jaiak

Musikari dagokionez, hainbat herrialdetako taldeak izango dira gurean: Euskal Herriko Gari; Brasilgo Marcio Faraco; Senegalgo Babacar & Diengoz; Eskoziako Phil Cunningham & Aly Bain, eta Kubako Raul Paz.

Antolatzaileen esanetan, kultura askoren arteko bilkura izan nahi du Mundumira jaialdiak: "Kaleko festa handi bat, erakustoki handi bat, emanaldi eta partaidetza handikoa. Egun horietan, euskal kulturaren erreferentzia puntu garrantzitsu bihur daiteke, Arrasate munduko beste kultura batzuekin bateratuz".

Euskal Herria aldizkariak 25.000 aleko tirada du. Hori kontuan hartuta, jaialdiaren antolatzaileek espero dute milaka lagun elkartuko direla Arrasaten.

DEBAGOIENEAN LABUR

Ibarreko sindikatuek hiriburuetan egingo diren manifestazioetan hartuko dute parte

Sindikatuek manifestazioak egingo dituzte Maiatzaren Lehenean, langileen eskubideak aldarrikatzeko. LABek Baionan eta Iruñean egingo ditu 10:30ean eta 12:00etan; ELAk, Bilbon, 11:30ean, Jesusen Bihotzean abiatuta. Hara joateko autobusak egongo dira. Oñati eta Arrasatetik 09:30ean irtengo da, Bergaratik 09:45ean eta Eskoriatzatik 09:15ean, hau Aretxabaletatik pasatuz. CCOOk EAEko hiru hiriburuetan egingo du, eta Donostiarako autobusak egongo dira Arrasatetik 10:00etan irtenda (Bergaratik pasatuko da). UGTk Donostiako Alderdi Ederren egingo du 11:00etan.

Turandot elkarteak aurkezpen bilera egingo du bihar Bergarako kultura etxean

Turandot elkarteak, Debagoienetik jasotako eskariei erantzunez, aurkezpen bilera egingo du bihar, zapatua, 12:00etan, Bergarako kultura-etxean. Turandot kultura elkartearen helburua da jende berria ezagutu nahi dutenei bideak erraztea. Horretarako, afariak, irteerak, oporraldiak... antolatzen dituzte. Taldekideek 30 eta 65 urte bitarteko adina dute eta lehen bilera honetara 49 urtetik gorakoak daude deituta. Gainontzekoendako hitzordua maiatzaren 7an izango da, leku eta ordu berean.

Angiozarren egingo du Batzar Orokorra AHT Gelditu! Elkarlanak maiatzaren 7an

AHT Gelditu! Elkarlanak Angiozarren egingo du Batzar Orokorra maiatzaren 7an, Abiadura Handiko Trenaren "aurkako oposizio fase berri bati ekiteko, eta ingurumenean nahiz gizarte arloan eragingo lituzkeen kalte larriengatik arbuio zabala jaso duen proiektu erraldoiaren eraikuntza lanak abian jartzeko egin diren iragarpenen aurrean ekintza edo mobilizazio plana finkatzeko".

Gizakom bloga sortu du HUHEZIk bi karreraren gaineko informazioa zabaltzeko

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, *Gizakom* izeneko bloga sortu du. Blogaren helburua da informazioa zabaltzea fakultate horretako Giza Zientzietako bi karreren gainean: Enpresarako Giza Zientziak eta Informazioa eta Komunikazioa. Blog honekin, HUHEZIk karrera horietan interesa izan dezaketenengana iritsi nahi du: gurasoak, ikasleak, orientatzaileak, irakasleak eta giza baliabideetako arduradunak.

ULMA
ULMA Hormigón Polímero, Koop. Elk.
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA
D E I A

EGUNA: 2005eko maiatzaren 6a
ORDUA: 15:30ean lehen deialdia eta 16:00etan bigarrena
TOKIA: Oñatiko kultur-etxea

GAI ZERRENDA
1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2004KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2005EKO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2004KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA. KONTU-IKUSKARITZA TALDEA IZENDATZEA
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEKO FONDOEN (HKSF) ERABILERA
7. EKONOMIA ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
8. ORDAINKETA SISTEMA BERRIA
9. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK
10. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
11. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA
12. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2005eko apirila

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketei buruzko informazioa bazkide guztien eskura daudela jakinarazten da.

Goazen!
Autoen gaineko gehigarria, maiatzaren 6an, egubakoitza, Goienkariarekin batera

Etxe hauen laguntzarekin: Mikel Lasa aseguruak • Fiat kanpazar • Talleres Blanco • Teknokar • Mugarri • Murillo autoak • Jon autoak • Desacristal • Markiegi autoak • Leniz garajea • Goiko leniz • Udalaitz • Chapime • Mapfre • Lagun garajea • Elgoibarko institutua • 4quatro4 • Zurich aseguruak • Giauto • Autoberri

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

BERGARA

Pazkoetan jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dute

Udaleko eta Bergarako hainbat kolektibotako ordezkariek aurtengo Pazkoetako programa aurkeztu zuten martitzenean. Azken urteotan jaiek izan duten beherakada ikusita, jendearen parte-hartzea bultzatzea eta giroa suspertzea da helburua.

Jaiak maiatzaren 13tik 17ra ospatuko dira. Nobedadeen artean, Pixpila Disko Busak *drag-queen*-ak edo *go-go*-ak ekarriko ditu egubakoitzean; zapatuan, dantza latindarren lehiaketa jokatuko da; Koadrilen Eguna, berriz, astelehenean ospatuko da. /E.M.

MONIKA BELASTEGI

ELGETA

Nazioarteko magoak Espaloian asteburuan I. Magia Mostran

Maiatzaren 13, 14 eta 15ean, Magia Mostra izango da Elgetan. Eguenean egin zuten aurkezpena eta, antolatzaileen esanetan, "nazioarteko mostra izanik, sona handia lortuko du, etorriko diren magoen ospeagatik, batik bat". Anthony Blake mago ezagunaren erakustaldia hilaren 13an, barikua, izango da. Zapatuko magia galan Lisboa, Frantzia eta Espainiako jaialdietako irabazleak izango dira Txan Magoaren gidaritzapean. Txan magoak aurkezpenean esan zuen: "Harrituta nago Espaloiak egindako apustuarekin". Domekan, amaiera jaiaz gain, magia izango da kalean. Magia Mostrako egun guztietarako bonoak 30 euro balio du. Egun bakoitzeko sarrerak ere eskura daitezke honako telefonora deituta: 943 78 90 85. /I.A.

ARETXABALETA

Lau bertsolari izango dira bihar kirol etxeko bertso jaialdian

Aretxabaletako Udalak bertso jaialdia antolatu du Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta Euskadiko Kutxak abian jarritako proiektu bati esker. Bihar, zapatua, izango da jaialdia 22:30ean, kirol etxean, eta ez da ordaindu beharrik egongo. Maila handiko lau bertsolari etorriko dira: Igor Elortza, Amets Arzallus, Ekaitz Goikoetxea eta Ainhoa Agirreazaldegi. Gai-jartzaile lanetan Egoitz Aizpuru ibiliko da. Bertso saioak antolatzeko ohitura berreskuratu gura du Udalak proiektuarekin, eta jarraipena izango du. /M.A.

ANTZUOLA

Epi Perez margolari antzuolarrak erakusketa jarriko du Gasteizen

Bihar, zapatua, Epi Perez pintore antzuolarrak margolan erakusketa zabalduko du Gasteizen, Ciudad de Vitoria hoteleko Fournier galerian, hain zuzen ere.

Maiatzaren 13ra arte egongo dira ikusgai bere lanak; 36 margolan jarri ditu erakusketan. Besteak beste, bodegoiak, loreak eta paisaiak ikusi ahal izango ditugu, tartean, Antzuolako pare bat paisaia.

Hauxe da Epi Perezek bakarka jartzen duen lehendabiziko erakusketa. Orain arte, beste pintorebatzuekin batera egin ditu erakusketak. /A.I.

ARRASATE

Etxerat-kideak lortzeko kanpaina abiarazi du Etxerat elkarteak

Aurrerantzean, hileko azken egubakoitzetan, mahaia ipiniko du Etxerat elkarteak Arrasaten, 18:30etik 20:00etara. Herriko plazan ipiniko dute mahai informatiboa; horrez gainera, auzoetara ere joango dira informazioa ematera. Esaterako Zigorrola auzoko jaietan, maiatzaren hasieran, hantxe izango dira. Hala jakinarazi zuten martitzenean, prentsaurrekoan.

Azaldu zutenez, herritarren laguntza eskatu gura dute, euskal presoen "bizi baldintzen eta eskubideen arazoa euskal gizarte osoarena delako". Guztien laguntzarekin, preso eta iheslarien eskubideen defentsa egitea da helburua.

ONDORIO EKONOMIKOAK

Izan ere, senide bat preso edo iheslari izateak, besteak beste, ondorio ekonomikoak dakartza haren familiarendako: "Urruntasunaren sinonimo dira gasolina, bidesariak eta hoteleko gauak, bisita labur bat egiteko behar den asteburu oso hori. Gure senideen eskubide urraketak salatzen ditugu. Boluntarioen lana ere hor dago, baina bulegoak, argindarra, telefonoa, faxa... ez dira doan".

Horregatik guztiagatik herritarren laguntza eta konpromisoa eskatu gura dute, eta jendea animatu Etxerat elkarteko kide izatera. Eskatu gura dute, baita ere, presoen herriratzea aldarrikatu behar dela-eta, *Euskal Presoak Euskal Herrira* leloa duen izara ahalik eta leku gehienetan ipintzeko. /U.M.

Zertzelada

Xabier Urizar *Gautxori* presoaren izenean manifestazioa egingo dutela ere iragarri zuten prentsaurrekoan; bihar izango da, 19:00etan

OÑATI

Biltegi berria eraikitzen hasi da Fagor Industrial Madalenako bihurgunean

Biltegi berria egiten hasi da Fagor Industrial Santxolopetegi auzoan, Migelena baserriaren ondoan. Hasi dituzte lanak eta urtebete inguru iraungo dutela uste dute. Biltegi berri honek 8.000 metro koadro inguru izango ditu eta bi pisukoa izango da. Egun duen biltegia txiki gelditu zaio Fagor Industriali eta horregatik berria eraikitzen hasi dira joan den astean.

Egun, zortzi bat langilek dihardute biltegian, eta lanak amaitzen dituztenean biltegi berrira pasatuko dira. Hortik, mundu guztira garraiatuko dituzte kamioiek Fagor Industrialen egiten dituzten produktu guztiak, sukaldeak, besteak beste. /O. E.

OIHANA ELORTZA

Lanak hasi dituzte eta urtebete barru bukatuko dituzte.

ESKORIATZA

Ez dute herri bazkaririk egingo domekan, Aitzorrotz egunean

Guztia prest dute domekarako, Aitzorrotz egunerako. Baina bada aldaketa bat aurreko urteekin alderatuta: antolatzaileek erabaki dute Aitzorrotzen herri bazkaririk ez egitea, aurreko urteetan ez zirelako lagun asko batu.

Hala ere, beste ekitaldi guztiak egingo dituzte: meza, trikitilarien emanaldia... eta gose direnendako tabernan ogitartekoak eta kafea banatuko dituzte.

Arratsaldean, Herriko Plazan herritarrek tortillak salduko dituzte, eta dantzaldia izango da. /I.B.

ARAMAIO

Zuiako Koadrilako herriak-eta ezagutzeko irteerak hasiko dira laster

Maiatzaren 8an hasi eta urriaren 23ra arte, hilero hiruzpalau irteera egingo dituzte, Zuiako Koadrilaren eskutik. Koadrilaren eremuan dauden herriak, parajeak, jauregiak, museoak... ikusiko dituzte txango horien bitartez. Esaterako, aurreneko irteeran, maiatzaren 8koan, Aramaioko Olaeta auzora joko dute, Otxandiotik gertu. Besteak beste, orein granja bat eta eliza bisitatuko dituzte. Edozeinek parte har dezake ekimenean. Izena emateko, 945 14 55 99 telefonora deitu behar da. /U.M.

LEINTZ GATZAGA

Herriko jaietan zer antolatu erabakitzeko batzarra

Irailaren 8an ospatuko dituzte gatzagarrek herriko jaiak, baina Udalak dagoeneko jaietan zer antolatu erabakitzeko batzarra egin gura du. Hala, kultura zinegotzi Jon Sasiainek datorren asterako egin gura du herriko taldeekin hitzordua.

BI IKASTARO KZGUNEAN

Datorren hilean *News*, maiatzaren 9an, eta *Itsasoan murgil zaitez*, maiatzaren 23an, ikastaroak egingo dituzte. Ikastaro horiek, baina, beharren arabera molda daitezke. /X.U.

Bihotzeko gaixotasunei buruz hitz egitera etorri da Arrasatera aste honetan Alberto Rodriguez medikua. Eroskik gonbidatu du eta, egindako bi hitzaldietan, bete egin da Monterroneko aretoa. Portugaleten egiten du berak lan.

OIHANA ELORTZA

OIHANA ELORTZA

Alberto Rodriguez

BIHOTZ-HODIETAKO MEDIKUA

"AEBko ohiturei kasu egiten diegunetik, asko gehitu da bihotzeko gaixotasunen arriskua"

MINBIZIA ETA ISTRIPUEN AURRETIK

"Bihotzeko gaixotasunek eragiten dute heriotza gehien herrialde industrializatuetan, minbiziak eta istripuek baino gehiago; afrikar bat, ordea, nekez hilko da horregatik"

PREBENTZIOAREN GARRANTZIA

"Urtean behin, behintzat, analisiak egin behar ditugu guztiok; horrez gain, gehiegikeriak egiteari uzteak, jana zaintzeak eta egunero paseatzeak ere prebentzio lana egiten dute"

Nola antzeman dezakegu bihotzeko gaixotasuna?

Bihotz-hodietako gaixotasunak ez dira propio sentitzen, gaixotasun askoren multzoek sortzen baitituzte, azken finean, bihotzeko gaixotasunak. Berez, bihotzeko gaixotasunek eragiten dute heriotza gehien herrialde industrializatuetan, istripuek eta minbiziak baino gehiago.

Bihotz-hodietako gaixotasunen barruan, asko sartzen dira: adibidez, bularraldeko angina, bihotzekoa, tronbosia edo hipertentsioa. Baita gizentasuna, diabetea, kirol falta edo kolesterola ere. Hauek guztiak arrisku faktoreak dira; zenbat eta horrelako faktore gehiago izan, orduan eta arrisku handiagoa izango du pertsona batek bihotzeko gaixotasunak izateko, bai bihotzekoa edo bai tronbosia, esaterako.

Prebentzioa berdina da arrisku faktore guztietan?

Ia bai. Erretzailearendako ez erretzea izango da prebentzioa; kirolik egiten ez duenak kirola egiten hasi beharko du; bihotzekoa izan duenarendako, egunero pilulak hartzea; tentsioa altu duenak dieta orekatua egin beharko du, eta kolesterola altu duenak, ordubeteko paseo arina egin beharko du egunero eta zer jaten duen zaindu beharko du.

Zein da prebentziorik onena bihotzeko gaixotasunari aurrea hartzeko?

Urtean behin, behintzat, analisiak egitea oso gomendagarria da. Horrek ikaragarri laguntzen du. Analisi horiek esango digute zer dugun, eta gero, behin neurriak hartzen hasita, onena da sei hilabetean behin analisiak errepikatzea. Gaixotasunari gertuko jarraipena egiten diogu horrela.

Zein da zure gomendioa?

Horixe, jendeari aholkatu nahi diogu analisiak egitea eta neurriak hartzea bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua gutxitzeko, behintzat.

Osasun Ministerioak aste honetan atera duen txostenak dio gaur egun daramagun bizimoduak areagotu egiten duela arriskua bihotzeko gaixotasunak izateko.

Horrelaxe da, zoritxarrez. AEBko bizilagunen ohiturak ari gara hartzen. Han, hiru pertsonetatik bat gizen patologikoa da eta haien antza hartzen hasi gara gu.

AEBko kulturak gero eta indar gehiago du gure artean. Ahaztu egin ditugu Mediterraneoko dietan erabiltzen den olioa eta hemen prestatzen dakizkigun lapikoko janariak. Gure jakiak prestatzeari utzi egin diogu; orain pizzeriatan ospatzen ditugu urtebetetze egunak eta, gosaltzeko, opilak ematen dizkiegu umeei.

Gizentasuna handitzen doa?

Bai. Baina ez hori bakarrik. Tentsioa neurtzen ez duten pertsonak ere gero eta gehiago dira, adibidez. Tentsioak ez du minik ematen eta, beraz, pertsona asko ez dira inoiz joan tentsioa neurtzera medikuarengana. Berdin gertatzen zaie azukrearekin ere: ez dute inoiz analisirik egin eta ez dakite odolean azukre maila altua edo baxua duten.

Emaitzen beldurragatik ez ditugu analisiak egiten?

Ikasleei notekin bezala gertatzen da hemen ere: inork ez ditu analisiak egin nahi medikuak zer esango dion beldur.

Faktore genetikoek ere zerikusi handia dute. Oinordekoek bihotzekoak izan badituzte, kolesterola altu izan badute beti edo bularraldeko anginarekin hil badira, adibidez, aukera asko dituzu zeuk ere horrelako zerbait izateko. Beraz, zaindu egin behar da eta analisiak egin.

Nolakoa da bihotz-hodietako gaixotasunak izaten dituen pertsona?

Emakumeek arrisku gehiago dute menopausia izan ondoren, gauza asko konplikatu egiten zaizkie ordutik aurrera eta. Gizonetan, ordea, 40-45 urtetik aurrera hasten gara arriskuak neurtzen.

Dena dela, bihotzeko gaixotasunak izateko arriskua duen pertsona honelakoa da: kirol gutxi egiten duena, erretzailea , tentsioa 14-9 baino altuagoa duena, kolesterola 250 baino gehiago duena, triglizeridoak dituena ... Faktore hauek dituen pertsonak arrisku handia du susto bat hartzeko. Baina susto hori izan daiteke tronbosi bat eta hemiplegiarekin gelditu edo infartu bat gainditu. Honek esan nahi du pertsona horrek arrisku handiak dituela etorkizunen buruko tronbosi bat izateko.

Analisietan asteriskorik ez izatea da prebentzioa?

Hori lortuz gero, arriskua asko jaisten da, bai.

Portugaleten lan egiten duzu zuk. Nabaritu duzu bihotz gaixotasunak dituzten pertsonen kopuruak gora edo behera egin duen azken urtetan inguru hartan?

Igo egin da kopuru hori. Bestalde, egia da prebentzio kanpaina asko egiten direla egun, eta horrek arriskuak saihesten laguntzen digula. Adibidez, enpresetan egiten dituzten analisiak oso lagungarriak dira prebentziorako. Askok lantegian egiten dituzte soilik analisiak, ez dira medikuarengana joaten eta, haiei esker, pertsona gehiagok egiten dituzte analisiak. Hala ere, familia-medikuak lagundu behar dio herritarrari analisiak egiten.

Zein da igoera horren arrazoia?

Guztiok dugun bizimodua: erlojupean bizi gara, dieta ez dugu zaintzen, komeni zaigun baino kirol gutxiago egiten dugu...

Batzuek automedikazioa aukeratzen dute arriskuei aurre hartzeko?

Automedikazioa ondo dago horrek esan nahi badu jaten duguna zaintzea, gehiegikeriarik ez egitea eta egunero paseatzera joatea. Aldiz, ez da batere gomendagarria bosgarreneko bizilagunari kolesterola kontrolatzeko eman dioten pilula norberak ere hartzea. Berdin gertatzen da azukre-maila neurtzeko pilulekin.

Jendeak medikuntza prebentiboa egitearen aldekoa naiz, eta ez automedikazioaren aldekoa. Hau da, urtean behin analisiak egin beharko genituzke guztiok. Tentsioa neurtzeko ere, nahiago dut mediku batengana joatea farmazian erositako makinarekin hartzea baino. Ez dut esaten txarrak direnik, baina makinak dira eta, askotan, pilak bere onenean ez daudelako, adibidez, ez dituzte beti emaitza zehatzak eta zuzenak ematen.

Nolakoa da Euskadiko bihotz-hodietako zerbitzua, ekipoa?

Hasteko, Espainiako osasun zerbitzu onena daukagu, hori argi dago. Gertatzen da presio asistentzial handia dugula.

Gure taldearen barruan alor ezberdinetako profesionalak ditugu, eta bakoitzari dagokion tratamendua emanaz bizitzaz disfrutatzeko aukera izango dugu guztiok.

Minbiziak eta istripuek baino jende gehiago hiltzen dute bihotzeko gaixotasunek?

Herrialde industrializatuetan, bai. Afrikan bizi den pertsona bat nekez hilko da bihotzeko gaixotasunengatik. Beharbada gosez hilko da, baina ez da normala bihotzeko gaixotasunengatik hiltzea.

Horregatik, prebentzioa oso garrantzitsua da. Orain, gainera, jendeak oso goiz hartzen du erretiroa, eta horiek ere jakin behar dute lana uzten dutenean ere zaindu egin behar direla, ezin direla etxean eserita gelditu.

Herentziazkoak dira bihotzeko gaixotasunak?

Gaixotasunak eurak baino, sortzen dituzten faktoreak dira herentziazkoak. Adibidez, gerta daiteke dieta oso zorrotza jarraitzea baina kolesterola beti altu izatea. Oinordekoek izan badute, litekeena da odolean izatea.

Nola ikusten duzu hamar urte barruko panorama?

Gaizki, ohiturak aldatzen ez baditugu. Kolesterola jaisteko pilulak 20 mgr-koak dira hemen, baina AEBn 40 eta 60koak dira. Pilulek, gainera, ondorioak dituzte.

Gutunak

Zozoak beleari ipurbeltz! (Lapurrak, eta IV)

Gertatzen da politikan sarritan errepikatzen den gezur bat azkenean egia aldaezin bihurtzen dela. Prozesu hau oraingoan gelditzeko gutun hau idaztera behartuta ikusi dut neure burua, Eskoriatzan pasa den asteartean gertatutakoa argitzeko asmoz. Espero dut, eta aurretik barkamena eskatzen dut, GOIENKARIAko irakurleak ez aspertzea milagarren eztabaida honekin.

Nire idatzi hau Aitor Elortondok pasa den alean idatzitako gutunak eragin du. Bere kasuak (adierazpenak) argi eta garbi utzi du errealitatea subjektiboa izan daitekeela, baina puntu bateraino. Hark egindako kontakizunak "xehetasun" asko bide bazterrean uzten ditu, eta hauek ezagutu gabe herriak pentsa dezake Ezker Batua-Berdeak eta bere kideek burua galdu dutela.

Lehenik eta behin, egia da ezker abertzaleko kideekin hitz egin genuela, salatutako ekintza ikusi ostean (guk —Merinok eta nik— momentu horretan ez genekien ezer). Uste nuen hitz egin ondoren dena argi eta garbi geratu zela, baina agerian da Aitorrek ez zuela ezer ulertu, edo ez zuela ulertu nahi izan. Itsu handiena ikusi nahi ez duena da.

Ezker Batua-Berdeak jakinaren gainean zebilela baieztatzeko Aitorrek ez du frogarik eman, baina nik emango ditut. Kartelak ipini zituenak bere kabuz ipini zituen eta guri leporatu ostean, debekatu genion jarraitzea eta agindu genion ipini zituenak kentzeko. Eskoriatzan guztiak kendu zituen eta Aitorrek hori badaki eta "harrigarria" da bere gutunean ez aipatzea. Arrasaten ere berdina gertatu zen, bat ahaztu zitzaion, ordea, eta horregatik kartel bakarra aurkitu zuen. Esan beharra daukat niretzat azken egunotan pasatu dudan esperientziarik desatseginena izan dela konturatzea, nire erakundeko kide batek nik kritikatu ditudan baliabideak erabili dituela.

Nolanahi ere, ezker abertzaleko kide batek ekintza hauek kritikatzea harrituta utzi nau. Zozoak beleari ipurbeltz!. Azalduko dut. Aitorri esan nion bezala, pasa den asteartean tipo honek eginikoa ez zitzaidan batere gustatu, baina ezta ezker abertzaleak Ezker Batua-Berdeaki eginikoa hauteskunde kanpaina honetan ere.

Zer jasan du Ezker Batua-Berdeak hauteskunde kanpaina honetan ezker abertzaleen kideen partetik? Eseri irakurle maitea, zerrenda luzea da-eta: Arrasateko Ezker Batua-Berdeak-en egoitzan pintadak; irainak, mehatxuak eta boikota ekitaldi publikoetan; gure zinegotzien kontrako "jarraipen biolentzia"; gure propaganda kentzea, estaltzea edo zapuztea (batzuek "legearekin" alderdiak kanpo uzten dituzte eta beste batzuek ekintzez saiatzen dira); Arangoitiko, Debako eta Tolosoko egoitzak eraso dituzte; Ezker Batua-Berdeak-en Bilboko kideen aurkako erasoak; etab.

Beraz, desberdintasun kuantitatibo eta kualitatiboak daude. Kuantitatiboak, ekintza kopuruan ez dago alderik. Kualitatiboak, bata gertaera bakana izan da, banako batek egina eta erakundeak azkar konpondua; bestea ezker abertzalearen estrategia jakin bati erantzuten dio. Ez dauka kolorerik.

Azkenik, hausnarketa bat. Eskubide guztien defentsa ez da bakarrik zure eskubideen urraketak salatzea, baita zure aurkakoaren eskubideen urraketak salatzea ere.

Eta, Aitor, espero dut polemika hau argi geratzea, biok euskal ezker zabal batean elkartuko garelakoan. Osasuna, askatasuna (denontzat) eta errepublika.

ANDER RODRÍGUEZ LEJARZA
(EZKER BATUA-BERDEAK)
Arrasate

Hauteskunde ez demokratikoak

Lehenik eta behin zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiogu Oñatiko herriari ezker abertzaleak egindako apustuak jaso dituen bozka kopuru handiagatik, bidean jarri dizkiguten traba guztiak gaindituz. Lan benetan zaila; baina oñatiarrok berriro ere buruarekin eta bihotzarekin bozkatzen dakigula erakutsi dugu.

Guztiok dakigu azken hiru hauteskunde zitetan (Europar Konstituzioaren erreferenduma kanpoan utzita; orduan ere Oñatin ezetza nagusi izan zen) bozka "ilegala" eman ondoren, oraingoan bozka "legala" emateko aukera izan dugula. Bozka zaila, oztopoz beterikoa; baina kualitatiboki balio gehien duen bozka izan da EHAKk lorturikoa.

Bozka honek legez kanporatzearekin amaitu du; baina ez egoera ez demokratikoarekin; oraingoan ere hauteskunde ez demokratikoak bizi izan ditugulako. Ez gara guztiok joko arau berdinekin lehiatu: Batasuna ezin izan da aurkeztu; Aukera Guztiak ezin izan da aurkeztu; 30.000 pertsona baino gehiago ikertuak izan gara sinadura bat emateagatik; Ertzaintzak hainbat ekitaldi politikori eraso egin die; eskubide indibidualak zein kolektiboak urratu dira; politikan parte hartzeko eskubidea ukatu da; aukeratzeko eta aukeratua izateko eskubideak ukatu zaizkio hainbat pertsonari...

Hala eta guztiz ere, ez dute lortu ezker abertzalea desagertarazte; ezker abertzalea indartua irten da eta oso pozik gaude. Emaitza hauekin gatazkaren irtenbidea hurbilago dugu, bakea eta demokrazia hurbilago ditugu. Emaitza hauekin Alderdien Legearen heriotza gero eta hurbilago dago, legez kanporatzea gainditu dugu eta gure herriaren historiaren orrialde beltzak betetzeko besterik ez du balioko hemendik aurrera; hori da gure itxaropena.

Era berean, egoera berri honetan legez kanporatzearen aurka hitzez soilik agertu den klase politikoari, "apartheid"a egunero kudeatzen ari den klase politikoari galdera bat: zergatik ez zoazte hitz hutsetatik haratago? Azken finean, apirilaren 17tik aurrera akordio politikoa, elkarrizketa, autodeterminazio eskubidea, demokrazia eta bakea hurbilago ditugu. Hau lortzea gu geu guztion ardura da; beraz, alderdikeriak zein interes pertsonalak alde batera uzteko garaia heldu dela esan duenez herriak, jar gaitezen benetan Euskal Herriaren alde lan egiten.

Amaitzeko, gogoeta txiki bat, zergatik ez diguzue utzi hauteskunde-mahai batzuetako presidenteek hainbat oñatiarri EHNArekin bozkatzen? Nortzuk zarete zuek gure oinarrizko eskubide bat urratzeko? Horrelako urrats txikiek herria eraikitzeko balio handia dute, ez ahantzi.

MARIJO ALTUBE ETA EREITTENEKO
BESTE HIRU HAUTETSIAK
Oñati

Kulturari beste ostikada bat

Azkeneko elurtearekin batera Bergarako zine areto bakarraren argiak betirako itzali direla ematen du. Jakin badakigu, azken urte hauetan jendearen joerak aldatu egin direla, hau da, herritar asko hiriburuetan dauden merkataritza-guneetako zine aretoetara joaten direla, eta beste hainbat etxean geratzen direla goxo-goxo, alokatutako edo Internetetik jaitsitako pelikulak ikusten. Baina ez al da tristea etxeko bakardadean pelikula bat ikustea edo berrogeita hamar kilometro egin beharra areto batean ikusteko?

Entzun dugunez, Novedades defizitarioa zen eta hori izan omen da ixteko arrazoia, baina gure iritziz kultura, zinea barne, ezin da etekin ekonomikoen arabera neurtu.

Duela urte batzuk bi areto genituen, eta orain, hamabost mila biztanle dituen herri honek ez al du gutxienez zine bat merezi?

Dirudienez proiekturen bat badago, hainbat ekitalditarako egokia izango litzatekeen aretoren bat egiteko, baina areto hori non eta noizko izango den ez dakigunez, bitartean gorde dezagun gure zine bakarra . Beraz Udalari eskaera bat luzatzen diogu, hau da, eman diezaiola Novedades aretoari behar duen diru laguntza lehenbailehen pelikulak ematen has dadin.

Uste dugu eskaera hau Bergarako herritar gehienon desioa dela, horregatik, berriz ere, Novedades zabalik eta bizirik nahi dugula aldarrikatzen dugu.

BERGARAKO EUSKALTEGIKO
IKASLE TALDE BAT
Bergara

Eskerrik asko Txantxiku Ikastolari

Lerro hauen bitartez Oñatiko Txantxiku Ikastolari lagunen arteko eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenago ere, aspaldi, bagenekien zein pertsona maitagarriak zebiltzan hor inguruan eta, aste bukaera honetan berriz ere, gure hurbileko kide direla frogatu dugu. Larunbatean, euren ikastolako azokan egon gara gure Kilometroetako arropak saltzen eta etxekotzat hartu gaituzte, eroso sentitu gara beraien artean. Oñatiko herriak kolpe latza jaso du joan den astean eta, samin giro horretan, berotasunez hartu gaituzte. Eskerrik asko Txantxiku Ikastola eta eutsi gogor Oñati: *You are the best!*

KILOMETROAK 2005.
ARIZMENDI IKASTOLA
Leintz

Noren ardura?

Aditu guztiak ari direnean esaten haurrei lagundu behar zaiela bereizten edo kritikatzen telebistako programak, nora begira gaude haurrak eurak iritsi direnean izatera mandoen erregeak? Oso telebista gutxi ikusten dugu, baina ez da oso jakintsua izan behar duela gutxi hartutako erabakia ere (haurrendako telebista orduetan kalitatea bermatzea) ez dela betetzen, batez ere iragarki kontsumista eta libertinaje hutsa adierazten duten familiako pelikuletan.

Baina gehien sutu nauena Boss Soul koloniaren iragarkia izan da. Zer gertatuko da gizon dotore eta eder hori neskatilarengana hurbiltzean? Izan ere, hasieran ikusten den begi hori ez da emakume heldu batena eta stop botoia gizakia eder horrek sakatzen du. Neuretako, hurrengo gertatu behar dena da liluratuta dagoen neskatila horren bortxaketa.

Eta gero esan diezadatela niri haurren hezkuntzaren ardura nagusia irakasleen esku dagoela.

ELI (EMAKUMEA, AMA, EMAZTEA ETA
IRAKASLE OHIA. NAN: 72.568.097)
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar,

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Karmele Etxabe

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

GOIESKOLA

ikasLAN

BiHe

instituto
IPINTZA
institutua

• **Batxilergoak**
-Natura eta osasun zientziak
-Giza eta gizarte zientziak
-Teknologia

Arrasate
INSTITUTUA



• **Batxilergoak (D eta A ereduetan)**
-Natura eta osasun zientziak
-Giza eta gizarte zientziak
-Teknologikoa
-Arte batxilergoa

zuazola-larraña
Oñatiko b.h. institutua

• **Batxilergoak**
-Natura eta osasun zientziak
-Giza eta gizarte zientziak
-Teknologia

• **Heziketa zikloak**
Erdi mailakoak
-Mekanizazioa
-Makineria eta linea eroanbide en instalazioa eta mantentzelan elektromekanikoa.
-Natura ingurumenean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea

BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

ARRASATE INSTITUTUA
Helbidea:
Arrasate BHI
Santa Teresa 25
Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 83 00
www.goieskola.net/arrasateinstitutua

IPINTZA INSTITUTUA BERGARA
Helbidea:
Ipintza BHI
Boni Laskurain 19
Tel.: 943 76 31 42
www.goieskola.net/ipintza

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA OÑATIKO BH INSTITUTUA
Helbidea:
Zuazola Institutuko Areto nagusia
Aita Madina z/g
Tel.: 943 78 21 50 / 943 78 12 08
www.onati.net

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a

GOIENKARIA

Aizkorriko mendi maratoian izaten den giro aparta berdintzea marka ederra izango litzateke.

Maiatzaren 1ean, lasterkariek lana izango dute Aloñara igotzen

270 lasterkarik esku hartuko dute I. Aloñako Igoeran

XABIER URTZELAI

Domekako proba hasi aurretik, antolatzaileek pozik egoteko arrazoi asko dituzte. Egiten duten lehenengo proba da, eta dagoeneko Euskadiko Kopa barruan dago. Gainera, 270 lagunek esku hartuko dute lasterketan. Hobeto ezin da hasi.

Eguraldiari begira daude antolatzaileak, horrek egingo du-eta proba ikusgarriago. Adituek esan dutenez, asteburuan ez dugu eguraldi txarra izango, baina baliteke domekan euri tanta batzuk botatzea. Ez du egingo, baina, proba iluntzeko beste, lasterkariak freskatzeko nahikoa baizik.

Astean zehar, antolatzaileetako bat, Xanti Mendiola, Arrasate Irratian izan da lasterketaren gainean berbetan. Probak izan duen harreragatik pozik daudela adierazi zuen: "270 lagunek eman dute izena, eta, kopuru polita izateaz gainera, maila handiko korrikalariak izango direla aurreratu dezaket. Gainera, Euskadiko Kopa osatzen duten hiru lasterketetako bat izateak ere bultzada handia eman digu". Gainontzeko bi probak aurrerago egingo dituzte, Lakuntzan eta Baigorrin.

Parte-hartzaileen gainean, gehienak Euskal Herriko korrikalariak badira ere, kanpotik ere maila handiko lasterkariak datozela gaineratu zuen Xantik: "Ez nuke esango nor den faborito, baina ibarrean ditugun atletekin, baliteke lasterketa hemengo batek irabaztea. Hortxe ibiliko dira Asier Urdanpilleta, Joxe Mendiola, Zuhaitz Ezpeleta..."

Ibarreko lasterkariek duten maila ikusita, baliteke lasterketa hemengo batek irabaztea

PROBA GOGORRA

Daukan desnibelagatik –2.016 metro–, Aloñako igoera proba gogorra izango da. 10:30ean hasiko da lasterketa, Herriko Plazan, eta, kanposantutik eta San Juango ermitatik igarota, Arregi baserrira iritsi, Lamiategira jaitsi eta Belarretik gora egingo dute, tontorreraino (1.238 metro). Jaitsiera ez dute leku beretik egingo: Urtiagainera iritsi aurretik, Uribarrirako bidea hartuko dute, eta Lezesarriko auzotik San Estebango ermitara joango dira. Handik jaitsiko dira herriraino, eta plazan egongo da helmuga.

Amaitzeko, antolatzaileek herritar guztiak animatu gura dituzte proba hori bertatik bertara ikusi eta korrikalariak animatzeko.

Gripea lehenengo eta pitzadura gero

Asier Olaizolak eta Juan Martinez de Irujok domekan jokatu beharko lukete Bergaran eskuz banakako finallaurdenetako bat. Eguaztenean egin zuten pilota aukeraketa, baina Irujok ez zuen argitu jokatzeko moduan egongo ote den, pitzatuta dauka-eta ezker eskuko hatz txikia; gaur egin behar zuen jokatuko duen erabakitzeko proba. Infiltratzea ez ei da irtenbide ona.

Kirolabur

ARRASATE/GIPUZKOAKO LAU T'ERDIKO FINALA

Frontis enpresak antolatu duen Gipuzkoako lau t'erdiko txapelketako finala jokatuko dute domeka eguerdian Alustizak eta Nagorek, Uarkapen. 12:00etan hasiko den pilota jaialdia osatzeko, Antxiaren eta Ariznabarretaren norgehiagokaz gozatu ahal izango dute Uarkapera hurbilduko diren pilotazaleek. Partidu horretan hirugarren eta laugarren postuak egongo dira jokoan. Jaialdia ikusteko sarrera hamar eurokoa izango da.

BERGARA/FUTBOL DERBIA AGORROSINEN

Preferenten, Bergarak eta Aloñak derbia jokatuko dute bihar, baina Bergarakoendako garrantzi txikia du horrek, gura duten bakarra jokoan egongo diren hiru puntuak eskuratzea da-eta. Aloña ez dago ezer barkatzeko moduan, baina Bergara larri baino larriago dago (zapatuan, 16:30ean). Mondra, berriz, Lesakara joango da, Beti Gazteren kontra jokatzera (domekan, 17:00etan). Eta UDAk, gutxienez, puntu bat ekarri behar du Zumarragatik (zapatuan, 16:30ean).

ESKORIATZA/ARETO FUTBOLA, BIHAR

Eskoriatzako Euskal Ligako taldearendako Frutas Adarra taldea ez da aurkari, sailkapenean talde hori eskoriatzarrak baino askoz ere atzerago dago-eta. Etxekoek bihar, zapatua, arratsaldean erakutsi beharko dute hori, 17:00etan hasita. Eskoriatzakoak gelditu ezinda dabiltza, eta denboraldiko kontrario gogorrena den Zierbana taldea puntu batera baino ez dute. Talde hori gainditzea da helburua baina, horretarako, lehenengo talde txikiak gainditu behar.

ARRASATE-OÑATI/LASTERKETA, DATORREN ASTEAN

Datorren maiatzaren 7an egingo dute Laixan eta AED euskara elkartekoek Arrasate-Oñati lasterketa, eta dagoeneko irekita dago izena emateko epea. Euskararen aldeko lasterketan izena aurrez ematen dutenek 6 euro ordaindu beharko dituzte. Lasterketa egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 8 euro ordainduta. Autobusa egongo da Oñatitik Arrasatera joateko. Gaztetxoendako ere lasterketa bereziak egingo dituzte.

ARETXABALETA/OTALA-ZELAIKO KROSA, GERTU

Dagoeneko guztia dute gertu datorren maiatzaren 15ean Urkuluko urtegiaren inguruan egingo duten 27. Otala-Zelaiko Kros Herrikoirako. Orain dela gutxira arte, senior mailako lasterkariek bi itzuli ematen zizkioten urtegiari, baina oraingoan itzuli bakarra emango diote. Hori bai, lasterketa Urkulun hasi beharrean Otala-zelain bertan hasiko dute. Hala, distantzia urtegiari itzuli bakarra ematea baino askoz handiagoa izango da: bi kilometro gehiago, gutxi gorabehera. Izenematea lasterketa egunean bertan egingo dute.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

Capellan - Lasa III / Del Rey - Goñi III
•
Mtz de Irujo / Olaizola I
•
Etxaniz - Arizmendi / Galarza V - Nalda III

aspepelota.com

- **Eguna:** igandea, maiatzaren 1a.
- **Ordua:** 17.00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.

KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK

Zure etorkizuna zeuk erabakitzen duzulako.

Zeure burua hamaika egoeratan ikus dezakezu: batetik bestera bidaiatzen, bilobekin jolasten... azken bat ean, zeuk nahi duzun etorkizuna aukera dezakezu eta. Horixe baita garrantzitsuena: zeuk aukeratzea. **Guk aholkularitza-lana egingo dizugu**, eta ametsa egia bihurtzen lagunduko.

Horregatik, **Kutxa Aurreikuspen-Plan Bermatu** berria aurkeztu nahi dizugu. Biharko egunari aurre egiteko **segurtasuna** eta **errentagarritasuna** emango dizkizu plan honek, berak bakarrik edo gure gainerako Planekin konbinatuta. Zuk badakizulako aukeratzen.

Bihar zer egin behar duzu?

Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa Bi BGAEra daude atxikita.

www.kutxa.net

kutxa
zure diruaren balio erantsia

Sofa leku

Eskaintza **zabalagoa**
zure esku
erakustoki **berrian**

HEMEN BADUZU NON AUKERATU!

grupo amuebladora mondragonesa

SOFALEKU
Zigarrola 1 (1go pabilioia)
Arrasate
- **Tel.: 943 79 15 03**
- **Faxa: 943 79 14 89**

banak importa TIENDAS

banak importa

MAIATZAREN 3TIK AURRERA ZABALIK

BANAK IMPORTA ARRASATE

Orain, gehien inporta zaizkizun
altzari eta osagarriak eskura
ditzakezu

tienda en tienda

los nec esa rios

BANAK IMPORTA ARRASATE - Zerkaosteta 3 - 20500 Arrasate
Tel.: 943 71 10 11

Goienka 2a

Egubakoitza / 2005eko apirilaren 29a

Kultura eta aisialdia

Apirilaren 29tik maiatzaren 6ra

Zer izen dauka Debagoienaz jarduten duen telebistako gaztetxoen lehiaketak?

AZALA: IÑAKI ITURBE

iKER

SUKALDEAK:

ARRASATE:
Udala Plaza z/g
943 79 00 43

OÑATI:
San Lorentzo 1
943 53 35 48

BAINUAK:

ARRASATE:
Zarugalde 52
943 79 99 42

FAGOR

50 IBILBIDE
FAMILIA
ETA
LAGUN ARTEAN

Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...
Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorrak ezagutzeko
50 mendi buelta.

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIArekin

Laguntzaileak:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS
euskalmet euskal meteorologia agentzia
ingurumena Zure esku dago
bbk

Euskaldunok behar dugun
berria

TELEBISTA/ ‘BANEKI!’ LEHIAKETA, ASTELEHEN ETA EGUENETAN GOITB-N

Ibarra ezagutuz, Port Aventurara

DEBAGOIENEKO 12-16 URTE BITARTEKO EHUN BAT LAGUN ARI DIRA, TALDEKA, NOR BAINO NOR GEHIAGO. ZEINEK IRABAZIKO OTE?

LEIRE KORTABARRIA

Debagoienaren gaineko jakintza, telebistaren dinamismo eta entretenimenduarekin uztartuta: horixe da GOITBko *Baneki!* saioaren eskaintza. Protagonistak, 12-16 urte bitarteko debagoiendarrak: ondo pasatu eta, bide batez, Port Aventurara bidaia irabazteko aukera dute.

Baneki! lehiaketaren funtsa da gaztetxoek Debagoienaren gainean gehiago ikastea eta euskarazko saio entretenigarri bat osatzea; helburu horiekin antolatu zuten lehiaketa Debagune Debagoieneko euskara elkarteen bilguneak eta Goienak. Lander Eskudero Debaguneko kideak honela azaltzen du ideiaren jatorria: “Bergaran eta Oñatin bazeuden herriaren inguruko lehiaketak, eta horietatik abiatuta, Debagoien osorako lehiaketa egitea pentsatu genuen, batez ere herri txikietara ere zabaltzeko. Horretarako, telebistaz baliatu gara”.

Joan den hiletik ezkero ematen du GOITBk: saio bana astelehen eta eguenetan, 21:00etan, eta errepikapenak martitzen eta egubakoitz eguerdian.

GOITB

Lau talde, grabatu aurreko uneetan. Tarte hori aprobetxatzen dute lasaitzeko eta barre batzuk egiteko.

PROBA MOTAK

Saio bakoitzean bi talde lehiatzen dira elkarrekin. Bi proba mota daude: batetik, jakintza probak, galdera-erantzunen bidez. Horien barne, hiru mota dago, zailtasun maila desberdinarekin. Puntu kopurua zailtasunaren pare doa.

Beste proba batzuk fisikoak dira, eta lehiakideen trebezia neurtzen dute hainbat motatako ariketak egiten. Hala egitea erabaki zuten antolatzaileek, umeendako eta ikusleendako arinagoa egiteko.

GUZTIENDAKO SARIAK

Parte-hartzaileen aldetik, erantzun ezin hobea izan du ekimen horrek: hain zuzen, lau lagunek osatutako 24 talderendako lekua zegoen, eta hogeita zortzik eman dute izena; hortaz, lauk ordezko bezala geratu behar izan dute. Debagoieneko herri guztietako umeak daude: Arrasate, Bergara eta Oñatitik zortzina talde, Aretxabaletatik hiru eta Eskoriatzatik bi, eta Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako parte-hartzaileak ere badaude talde horietan.

Hiru finalistek ligaxka bat jokatuko dute irabazlea eta bigarren eta hirugarren saridunak erabakitzeko. Saio horiek ekainaren 23, 28 eta 30ean emitituko dira. Eroski Bidaiek uztailean Port Aventurara bidaia oparituko diete irabazleei; Ikastolen Elkarteak mahai-joko sorta bana emango die bigarren sailkatu diren lehiakideei.

Bestalde, Florida eta Guridi zinemek eta Bocattak zinemarako bi sarrera eta bi menu oparitzen dizkiete parte-hartzaile guztiei, eta baita asteko galdera SMS bidez asmatu eta zozketa irabazten duenari.

Internet, lagungarri

***Baneki!* galdera-erantzunetan oinarritzen da, eta galdera batzuk ez dira, ez, edozeinek asmatzeko modukoak. Hiru zailtasun maila daude, eta bigarren eta hirugarren zailtasun mailako galderak Interneten jarri zituzten antolatzaileek, *www.goiena.net/baneki/LehiaketakoGalderak* webgunean. Zergatia azaltzen digu Debaguneko kide Lander Eskuderok: “Arazoak saihesteko egin genuen hala. Hau da, gure helburua da euskarazko saio entretenigarri bat egitea, Debagoienaren inguruko kultura zabaltzea... baina baita gaztetxoei aitzakia ematea azterketa egiteko eta guztion artean ondo pasatzea”. Horrela, lehiakideek astia izan dute erantzunak bilatzeko.**

Galdera guztiak Debagoieneko euskara elkarteek prestatu dituzte, eta arlo guztietakoak dira: euskara, kirola, ingurumena, Debagoieneko historia, debagoiendar famatuak...

MIKEL ARANBURU / AURKEZLEA

“Ibarreko ‘Date el bote’ antzekoa da ‘Baneki!’ saioa”

GOITBko ikusleendako aurpegi ezaguna da Mikel Aranbururena (Oñati, 1980). Apiriletik ezkero, *Baneki!* lehiaketako aurkezle bezala ikusten dugu.

Aurkezleak aurkez beza saio hori...

Debagoienaren inguruko kultura saioa da, oso dinamikoa eta etxekoek ere jokatzeko modukoa, galderei erantzunez eta SMSak bidaliz. Erraz jarraitzen da, dinamikoa delako eta ordu erdi irauten duelako.

Orain azkeneko, *Txintxaun* lehiaketa aurkeztu zenuen, hura era GOITBn. Alde handia dago?

Bai, bi saioek ez dute elkarrekin zerikusirik; oso formatu desberdinak dira. *Baneki!* edozerekin konparatu beharko banu, esango nuke Debagoieneko *Date el bote* moduko bat dela.

Zaila da adin horretako gaztetxoekin lan egitea?

Nire lana, programa etxekoei aurkezteaz gain, da saioa dinamizatzea eta ume eta gaztetxoak lasai egon daitezen laguntzea, oso-oso urduri etortzen dira eta, serio-serio eta tentsio handiarekin. Daukadan esperientziarengatik, ez zait lan zaila egiten.

Ezinegon hori kentzeko trikimailurik baduzue?

Bai, bai. Grabatzen hasi aurretik, eurekin egoten gara, zelan grabatuko dugun azaltzen diegu... Beste modu bat da txisteak kontaraztea eta barrea eragitea; barre egiten duenari puntu gehiago emango diogula-eta esaten diegu.

Neskatilak ala mutikoak dira lotsatiago?

Mutikoak, nik uste; neskak errazago lasaitzen dira.

Horrelako lehiaketa baten, anekdotarik edo bitxikeriarik ere izango zenuten.

Horrelako bat egon zen zero saioa, probakoa, grabatu genuenean. Lau mutikoko talde bat lehiatzen zen, eta trebezia proba zen globoak puztea harik eta eztandarazi arte. Halako baten, taldeko bat harrapatu genuen, globoak puztu ondoren, izenarekin ipintzen diegun txaparen orratzarekin apurtzen.



Mikel Aranburu.

Horrez gain, talde bakoitzak aurkezpen bideo bat grabatu behar du, eta oso bideo politak daude, ikusteko modukoak.

Galdera batzuk zailak dira, gero. Zeuk jakiten dituzu erantzunak?

Ez, askotan ez dakizkit, eskerrak erantzuna idatzita ematen didatela!

Bestalde, galdera zailenak Interneten daude, eta berehala ikusten da zein lehiakidek dakartzaten erantzunak ikasita eta zeintzuek ez: batzuek berehala erantzuten dute, saio aurretik errepasatzen ibiltzen dira... Denetarik dago.

Api. 29–Mai. 6

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

MATRIKULAK

ARRASATE

► **Arrasate Institutuan** Batxilergoko aurre-matrikulazio epea zabalik dago maiatzaren 6ra bitartean, institutuko idazkaritzan, 09:00-17:00 ordutegian (egubakoitzetan, 15:00ak arte).

BERGARA

► **Ipintza Institutuak** aurre-matrikulazio epea zabaldu du. Maiatzaren 6ra bitartean dago horretarako aukera, euren bulegoetan.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Oñatira arratsaldeko irteera** egingo dute erretiratuek maiatzaren 5ean. Izenematea zabalik dago bihar, zapatua, arte, 18:00-19:00.

ARETXABALETA

► **Bertso saioa** egingo dute bihar, zapatua, Igor Elortza, Amets Arzallus, Ekaitz Goikoetxea eta Ainhoa Agirreazaldegik; gai-jartzailea Egoitz Aizpuru izango da. Kirol etxean izango da, 22:30ean.

► **Hartzaren gaineko** hitzaldia egingo du Miguel Mari Elosegik eguenean, hilak 5, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi elkartearen eskutik.

ARRASATE

► ***Gautxori* euskal presoaren** omenezko manifestazioa egingo dute bihar, zapatua, Seber Altuben, 19:00etan; gero, ekitaldi bat egingo dute Herriko plazan.

► **Umeen danborradan** parte hartzeko izenemate epea zabalik dago egunero maiatzaren 7ra bitartean, SUDCen lokalean, 18:00-20:00.

► **Emakumeen osasunaren** inguruko hiru ekintza antolatu ditu Ekin Emakumeak elkarteak: yoga ikastaroa (maiatzak 7-28, zapatuetan), dieten fidagarritasunaren gaineko hitzaldia (maiatzak 11, 18:00) eta autoestimu eta norberaren ezagutza ikastaroa (maiatzak 23 eta 25). Izena emateko, jo euren bulegora, Pablo Uranga kalean.

BERGARA

► **EHNA** tramitatuko dute bihar, zapatua, Irizar jauregian, 11:30-13:30.

► ***Gipuzkoako mendiak aro berrian (XVI-XVIII. mendeetan)*** delako hitzaldia egingo du Alvaro Aragón adituak hilaren 3an, martitzena, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

► **Deba ibaian baltsa-jaitsiera** antolatu du Bergarako Herri Mugimenduak jaietarako. Izenematea zabalik dago herriko edozein tabernatan.

► ***La vida en solitario*** delako hitzaldia egingo du Joseba Muñoz adituak hilaren 3an, martitzena, erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

DEBAGOIENA

► **CNT Gipuzkoak** dei egiten die debagoiendarrei maiatzaren 1eko ekitaldietan parte hartzera. Argibideak, *www.cnt.es/gipuzkoa* webgunean edo 943 37 08 97 telefonoan.

OÑATI

► **Telleria Baserriko Jaia** aurkeztuko du Ceramikarte taldeak gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan.

► **Oñatieraren gaineko jardunaldiak** gaur, egubakoitza, bukatuko dira, Izagirre, Gandiaga eta Villasanteri omenaldiarekin, Santa Anan, 19:30ean.

► ***Haurren zeloak*** hitzaldia egingo dute eguenean, hilak 5, Santa Eskolastikako egoitzan, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE

► **Gaztetxearen 14. urteurrenaren** ospakizunen barne, gaur, egubakoitza, Gaztelako gazte ezkertiarren hitzaldia izango da, 19:00etan; bihar, zapatua, AHTren gaineko hitzaldia egingo dute, 18:00etan, eta gauean, kontzertua. Azkenik, etzi, domeka, film laburrak emango dituzte 18:30ean.

► **Corazon de Encina elkarteak** Kultura Astea ospatuko du. Etzi, domeka, Erregina eta Ohorezko Damak aukeratuko ditu, 19:30ean; hilaren 2an, Marcelino Segoviaren margo erakusketa zabalduko dute; 3an, gaztetxoendako lehiaketak izango dira; hilaren 4an, bideo emanaldiak, 19:00etan; eta eguenean, futbolin txapelketa, txokolate-jana eta patata-tortilla lehiaketak, 18:00etan. Datorren asteburuan ekintza gehiago egingo dituzte.

BERGARA

► **San Prudentzio jaiak** ospatuko dituzte Elorregin. Gaur, egubakoitza, mus azkar txapelketa izango da, 21:00etan; bihar, zapatua, bertso bazkaria, 14:00etan, eta erromeria, 22:00etan; eta etzi, domeka, meza, 10:30ean, trikiti emanaldia, pilota jokoak, musika, eta salda eta txorizo jana.

► **Labegaraietako jaiak** ospatuko dituzte etzi, domeka. Goizean, marrazki lehiaketa eta meza izango dira; arratsaldean poteoa eta Labegaraietako txirrindularitza lasterketa, 16:30ean; *kukaña*, buruhandiak eta txokolate jana, kiroldegian; eta auzo afaria, 21:30ean, Zabala jatetxean.

ESKORIATZA

► **Aitzorrotz Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. 09:30ean igoko dira hara; 11:30ean meza entzungo dute; segidan, trikitilarien emanaldia egongo da. 18:30ean, dantzaldia izango da Herriko plazan, eta herritarrek egindako tortillak banatuko dituzte. Batutako dirua Eskoriatzako elbarriendako eta Atxorrotx GKEarendako izango da.

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Telleria Baserriko Jaiaren** barne, bi erakusketa antolatu ditu Ceramikarte taldeak: batetik, *Impresiones calcinadas* Ruben Navarroren erakusketa Harresi aretoan, honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:30; zapatu eta domekan, horrez gain, 12:00-14:00. Bestetik, *Eraikuntzak* delakoa, Reyes Guillenena, Monterronen, ordutegi berean.

ESKORIATZA

► ***Esculturas de luz*** Rafaela Pareja eta Samuel Bayarri artisten erakusketa dago hilaren 8ra bitartean Ibarraundi museoan, honako ordutegian: astegunetan, 16:00-20:30; zapatu eta domekan, horrez gain, 12:00-14:00. Ceramikarte elkarteak antolatu du, Telleria Baserriko Jaialdiaren barne.

► **Akonkaguaren** gaineko argazki erakusketa ipiniko du Aitzorrotz kultura elkarteak hilaren 3an Inkernu tabernan.

OÑATI

► **NVK Holandako zeramika taldearen** erakusketa dago hilaren 8ra bitartean kultura etxean, honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:30, eta zapatu eta domekan, horrez gain, 12:00-14:00. Telleria Baserriko Jaiaren egitarauaren barne dago erakusketa.

IKASTAROAK

DEBAGOIENA

► **Lehen sorospena, uretako sorospena eta geriatria** ikastaroak deitu ditu Gurutze Gorriak, eta izenematea zabalik dago honako telefonoan: 680 64 80 14.

ESKORIATZA

► **Patinaje ikastaroak** antolatu ditu udalak maiatzaren 15etik ekainaren 12ra bitartean, hasiera eta sakontze mailetan. Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 7ra bitartean. Kiroldegiko bazkideendako, 10 euro da; gainerakoendako, 13 euro.

MUSIKA

ARRASATE

► **Daniel Merino** musikariak pop-rock emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 23:30ean.

► **I. Apirileko Musikaldia** bukatzeko, honako emanaldiak egongo dira: gaur, egubakoitza, Quadrabit perkusio taldea, Amaia antzokian; eta bihar, zapatua, Conductus Ensemble taldea, San Joan Bataiatzailearen parrokian, biak 20:30ean.

► **Abesbatzen topaketa eguna** izango da bihar, zapatua, Uarkape pilotalekuan, 17:00etan, Kilometroak 2005ek antolatuta. Arizmendi Ikastolako taldeez gain, Berriz, Aramaio eta Oñatiko abesbatza gazteek eta gonbidatu sorpresa batek parte hartuko dute. Sarrera 3 euro da, eta batutako dirua Harreman GKEarendako izango da.

► **Deus (Goizueta)** eta beste talde batek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► KONTZERTUAK

OÑATIKO II. PUNK JAIALDIAK ZORTZI TALDE BATUKO DITU ZAPATUAN

Punk talde onenetariko batzuek Oñatin jo zuten 1983an. Hori omentzeko, bigarren urtez, punk jaialdia antolatu du Oñatiko gaztelekuak. Iaz bezala, Debagoieneko eta kanpoko taldeek joko dute, honakoek: Mutuo Desprecio (Ordizia), Afonía (Hernani), ¡Joder, qué prisas! (Madril), Jódete (Aretxabaleta), Krimen (Oñati), Desprecio (Arrasate; argazkian), Lo mejor de cada casa (Jaka) eta Semeputiek (Azpeitia). Krimen taldeko oñatiarrek euren debuta egingo dute taula gainean. Jaialdia bihar, zapatua, izango da, Oñatiko gaztelekuan, 17:00etan. Zortzi talde horiek orain 22 urte talde ezagunek utzitako doinuen oihartzuna jasoko dute: Cicatriz en la Matriz, Vulpess, RIP, Cirrosis, Último Resorte, Odio, Basura eta Desorden.

Non: Oñatiko gaztelekuan. **Noiz:** bihar, apirilak 30, zapatua. **Ordua:** 17:00etan hasiko da.

► **3.60 aretoak** honako disko-jartzaileen emanaldiak antolatu ditu: gaur, egubakoitza, Ene!, 00:00etan; eta bihar, zapatua, Loren eta Balza, 03:00etan.

BERGARA

► **Sei Urte eta Nabari** Berrizko taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Sei Urtek *Ekiozu* diskoa aurkeztuko du.

► **The Saints** taldeak joko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Talde gonbidatu batek ere joko du. Sarrera 18 euro da, 15 aldez aurretik erosita.

ANTZERKIA

ELGETA

► **Boni Ofogo (Kamerun) eta Martha Escudero (Mexiko)** ipuin kontalariak arituko dira etzi, domeka, Espaloia antzokian, 19:30ean, Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdiaren egitarauaren barne.

OSPAKIZUNAK

ELGETA

► **Eskola Txikien Egunaren** aldeko jaia egingo dute bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 19:30ean. Besteak beste, Eskola Txikien abestia aurkeztuko dute. Bertso emanaldiak, ume eta gurasoendako jolasak… izango dira.

IKUSKIZUNAK

DEBAGOIENA

► **Zeramikaren gaineko zinema zikloa** antolatu du Ceramikarte taldeak. Gaur, egubakoitza, honako emanaldiak izango dira: *Osseklei* (Herbehereak), Oñatiko kultura etxean, 19:00etan, adreilu lantegi baten eraberritzearen gainean; eta *Keramik Symposium-Gmunden 2004* (Austria), *Grand Feu en Puisaye* (Frantzia) eta *Thamimount, la última alfarera* (Espainia) filmak Arrasateko kultura etxean, 18:00etan. Sarrera 3 euro da.

ELGETA

► **Arnó maisuak** hipnosi erakustaldia egingo du gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Crimen ferpecto
Egubakoitza: 22:30.

Bambi
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

El hundimiento
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Zientzia fikzioa
Domeka: 17:00.

Hermanos
Eguena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Master and commander
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Million dollar baby
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

El regreso
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Be cool
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Las tortugas también vuelan
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Sahara
17:00, 19:45, 22:30.

XXX 2 - Estado de emergencia
17:30, 20:00, 22:30.

La maldición
17:30, 20:00, 22:30.

Frágil
17:30, 20:00, 22:30.

In good company
19:45, 22:30.

Million dollar baby
17:00.

El gran golpe
17:00, 19:45, 22:30.

Bodas y prejuicios
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

XXX 2 - Estado de emergencia
17:30, 20:15, 22:45.

Un canguro superduro
17:30, 20:15, 22:45.

Frágil
17:15, 20:00, 22:30.

In my country
17:30, 20:15, 22:45.

American splendor (J.B.A.)
17:30, 20:15, 22:45.

La casa de las dagas voladoras
17:20, 19:50, 22:35.

Robots
17:15.

La maldición
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Hierro 3
17:15, 20:00, 22:30.

Million dollar baby
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Hormigas en la boca
17:30, 20:00, 22:30.

Hermanas enfadadas
17:30, 20:00, 22:30.

Millones
17:30.

Mi querido Frankie
17:30, 20:00, 22:30.

15 días contigo
20:00, 22:30.

Samaritan girl
17:00, 19:45, 22:30.

Reinas
17:00, 19:45, 22:30.

Mr. Batignole
17:00, 19:45, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Hitch
17:00.

Robots
16:15, 18:15, 20:15.

Asalto al distrito 13
20:15, 22:30, 00:45.

Miss Agente Especial 2
17:00.

El escondite
22:30, 00:45.

XXX 2 - Estado de emergencia
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Malevolence
20:30, 22:30, 00:45.

Los chicos del coro
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Un canguro superduro
16:15, 18:15, 20:15, 22:30, 00:45.

Be cool
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

La maldición
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Habana blues
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Hitch
20:00, 20:25, 00:50.

Reinas
12:15, 16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

La intérprete
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:30.

Los padres de él
19:40, 22:05, 00:25.

Million dollar baby
12:15, 16:35, 19:15, 21:50, 00:25.

Be cool
12:15, 16:45, 19:30, 22:00, 00:35.

El gran golpe
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Heffalump
12:15, 16:40, 18:10.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Bob esponja
12:15, 16:05, 17:55.

Un canguro superduro
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

In good company
12:15, 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

Saw
12:15, 16:25, 18:30, 20:35, 22:40, 00:45.

La maldición
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Hotel Rwanda
19:45, 22:10, 00:40.

Robots
12:15, 16:00, 18:00.

The ring 2
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
12:15, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Sahara
12:00, 17:10, 19:40, 22:10, 01:00.

Robots
12:10, 16:15, 18:15.

El penalti más largo del mundo
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

La maldición
12:00, 16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

Un canguro superduro
12:00, 16:10, 18:10, 20:15.

Million dollar baby
22:10, 01:00.

In good company
12:15, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

XXX 2 - Estado de emergencia
12:00, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

El gran golpe
12:10, 16:00, 18:00, 20:00, 22:05, 00:30.

Be cool
20:10, 22:35, 01:00.

The ring 2
12:05, 17:10, 19:30, 22:00, 00:30.

Heffalump
12:20, 16:30.

Cosas que hacer antes de los 30
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Reinas
12:10, 17:15, 19:45, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Las tortugas también vuelan: ●●●● / Million dollar baby: ●●●● / La intérprete: ●●● / La casa de las dagas voladoras: ●●● / Crimen ferpecto: ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

SAMARITAN GIRL

PUNTUAZIOA: ●●

ZUZENDARIA: Kim Ki-duk.
AKTOREAK: Lee Uhi, Kwak Ji-min, Seo Min-jung.

Azken urteotan Koreatik etorritako film ugari ikusteko aukera izan dut. Horietako asko beldurrezko eta zientzia fikziozko generokoak dira, eta irudi gordinez (indarkeria, odola eta erraiak osagai garrantzitsuak dira) beterik daude. Halako filmen egileen artean, Kim Ki-duk dugu. Nahiko ezaguna egin zen La isla filmarekin, eta orain, nahiko epe laburrean, berak zuzendutako hiru lan izan ditugu gure pantailetan. Duela hilabete batzuk, *Primavera, verano, otoño, invierno… y primavera*, ikusteko aukera izan genuen; kontatutako istorioak genero fantastikotik alde egiten zuen eta zuzendariaren alderdi beltza bazuen arren, lirikoagoa eta lasaiagoa zen. Orain, ia batera, bere bi azkeneko lanak iritsi dira: Hierro 3 eta *Samaritan Girl*.

Samaritan Girl-ek bi neska gazteren istorioa kontatzen digu. Ikasleak dira eta, dirua lortzeko, prostituzioaren munduan sartzen dira. Bat prostituta da eta besteak horri gizonekin hitzorduak lortzen laguntzen dio. Egun batean, kontatuko ez dugun zorigaitz bat gertatzen da eta bigarren neska prostituta lanak egitera behartuta sentituko da. Aita polizia da eta, gertatzen ari denaz oharrean, alabaren bezeroen bila joango da.

Samaritan Girl nahiko film bitxia da: elkarrizketak murritzak dira eta zuzendariak jariakortasunez kontatzen daki istorioan gertatzen dena. Filmak ez du gehiegi irauten eta ez da aspergarria egiten, baina ni, behintzat, hotz samar utzi nau. Ikusten ditugu pertsonaiek egiten dituzten gauzak, hartzen dituzten erabakiak, baina ez dugu euren gainean gauza handirik jakingo. Egiten dituzten gauzek ondorio batzuk izango dituzte, baina horiek guztiek ez dute indar eta aberastasun handiko istoriorik osatzen. Izaten dira dena erakusten ez duten filmak, eta iradokizun ahalmenean datza horien mamia, baina ez dut uste hori *Samaritan Girl*-en kasua denik. Istorioa ondo kontatua dago –polizia alabaren bezero baten etxera joaten denean; filmaren azkeneko eszena; indarkeri une batzuk off-ean azalduta—, baina nahiko laua da. Ikusten dugu gertatzen dena, baina horrek ez digu gehiegi esaten.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa erdialdean 180 m².
• Martoko 85 m². Eguzkitsua.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Erdialdea 50 m². Berritzeko.
• San Pedro 110 m². Berritzeko.
• Bolu 90 m². Garajea.
• Erdialdea 40 m². Oso ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza berri.
• 55 m². Ondo.
• 88 m². Garajea. Oso ondo.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.
LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40
ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 72 m². Oso ondo. Ganbara
•Duplexa, erdialdean 116 m².
•Masterreka 69m². Oso ondo dago.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•Elorregi 64 m². Berritzeko.
•Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
•Duplexa, erdialdean 153 m².
•Aranerreka 82 m². Garajea.
•San Pedro 110 m². Berritzeko.
ANTZUOLA:
•Bustinzuri 88 m². Berria.
•11 etxebizitza berri.
OÑATI:
•Erdialdea 83 m².
SORALUZE:
•Ezozi 83 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Eraiki berria, 87,80 m² erabilgarriak. 23 m²-ko egongela, hiru logela, 54,80 m²-ko terraza (aparte), 39,67 m²-ko garajea, e.a. Presazkoa. 318.536 euro negoziagarriak. Telefonoa: 675 71 24 54 edo 944 37 80 27.

Antzuola. Etxebizitza berria. Kanpoaldera. 87,20 m². Hiru logela, hidromasajea, terraza 54,80 m², garajea 39,67 m², igogailua, berogailua, hari musikala, elondo zorua...Prezio negoziagarria. 318.536 euro. 944 37 80 27 edo 675 71 24 54.

Aretxabaleta. Murubide kalean. 90 metro koadro. Garaje eta ganbara ederrak. Egoera oso onean. 945 45 51 57 edo 945 44 53 73.

Aretxabaleta. Txaleta salgai. 180m². Garaje bikoitza. Bost logela, egongela, sukaldea eta bainugela bi. 50m²ko aterpea. 150m²ko loralegia. Oso bista onak. Etxe agentziok, ez deitu. Telefonoa: 609 48 99 58.

Arrasate. 50 m²-ko apartamentua salgai. Erdialdean. 685 72 17 68.

Arrasate. Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

Arrasate. Erdiko kalean, 120 metro kuadro. Lau logela, egongela, bainugela bi eta bulegoa. 620 92 87 52.

Arrasate. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

Arrasate. Larrea. 91 m². Lau logela, egongela, sukaldea eta bainugela bi. Bista onak ditu. Kanpoaldera. Telefonoa: 678 53 82 48.

Arrasate. Obenerreka kalean. 80 m². Hiru logela, egongela, bi bainugela. Ganbara. 240.000 euro (40.000.000 pezeta). 620 eurotan alokatzeko aukera ere bai. 619 80 77 12.

Arrasaten etxebizitza salgai, Zerrajera kalean. 680 79 77 24 edo 943 03 47 59.

Bergara. Aranerrekan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukalde-jangela, bi bainugela, terraza bat eta bi balkoi. Ganbara eta garajea ditu. Berogailua dauka. Prezio negoziagarria. 943 76 43 31.

Bergara. Erdialdean. Bi solairu, 155 m², berrituta eta jantzita. 630 22 66 20.

Bergara. Erdigunean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, despentsa eta ganbara. Berritua. Jantzita dago. 607 96 14 66.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. 943 76 05 75.

Elgeta. Bi logela, sukaldea, bainugela, egongela eta ganbara ditu. Igogailua ere badu. Telefonoa: 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Elgeta. Bigarren solairua. Igogailua du. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta ganbara. 687 04 63 82.

Elorrio. 85 m²-ko etxebizitza eta 20 m²-ko garajea. 3 logela eta 2 komun ditu. 45.000.000 pezeta. 946 23 18 37.

Oñati. 95 m². Hiru logela, egongela eta ganbara. Berrituta dago. 943 78 07 84 edo 635 75 62 02.

Oñati. Duplexa salgai. 120 m². Erdialdean. Deitu arratsaldez. 943 78 34 93.

Soraluze. Etxe berritua salgai. Garajea, goi solairua, txokoa, komuna eta sukaldea jantzita. 144 m². Telefonoa: 615 77 99 20.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean dagoen etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 943 79 14 13.

Arrasate. Erguin kalean. 20:00etatik aurrera deitu. 943 79 04 40.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Erdialdean dago eta jantzita dago. Telefonoa: 943 79 14 13.

Arrasate. Hiru logela eta bi bainugela ditu. 635 73 27 74.

Benidorm. Apartamentua. 945 29 33 80.

Benidorm. Apartamentua. Hondartzatik gertu. Igerilekua eta aire girotua. Telefonoa: 666 18 53 87.

Benidorm. Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzan. Igerilekua, garajea eta aire girotua ditu. 666 67 06 94.

Bergara. Etxebizitza emango nuke errentan. Bolu auzoan dago. Juani. Telefonoa: 943 76 39 91.

Cambrils. Apartamentua errentan ematen dut, itsasotik gertu-gertu. Igerilekua du eta berdegunea ere bai. 610 79 47 29.

Donostia. Erdialdean. Udan alokatzen da. 653 73 34 57.

Ezkarai. Apartamentua errentan.4-6 lagunendako. Maiatza-abuztua. Telefono: 685721698. 685 72 16 98.

La Pineda (Salou). Etxebizitza alokairuan. Urbanizazio pribatua. Igerilekua. Hondartzatik 200 metrora. Abuztuaren 1etik 15era eta irailean. 943 79 45 74 edo 606 76 11 37.

Peñiscola. Apartamentua. 945 29 33 80.

Peñiscolan apartamentua errentan ematen da, uztailean, abuztuan eta irailean. Hondartzatik 20 m-ra. Igerilekua eta aparkalekua ditu. 943 79 48 82.

Torredembarra. Txaleta ematen da errentan, hamabost egun edo hilabeterako. Port Aventuratik 10 minutura. Igerilekua du eta loralegiz inguratua dago. Zazpi ohe. 635 71 06 39.

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO.
647 05 42 75

Vera (Almeria). Apartamentu jantzia ematen da errentan gune naturistan. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote arduratsu batek etxebizitza hartu gura du errentan. 679 49 40 70 edo 616 14 01 42.

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genuke, jantzitakoa edo erdi jantzitakoa. Berogailuduna izatea nahiko genuke. 679 61 39 21.

Debagoiena. Etxebizitza hartuko genuke errentan, herriren bateko erdialdean dagoena. Bi gelakoa, jantzia eta txukuna. Ekonomi-maila oneko senar-emazteak gara. Telefonoa: 636 34 77 08 edo 667 53 89 66.

Leintz bailara. Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan hartuko nuke etxea errentan. 686 63 97 50.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bizpahiru pertsona behar dira. Eguzkitsua. Iturriotz kalean. Unibertsitatetik hiru minutura. Sukalde zabala, etxetresna berriak, berogailu zentrala. Telefonoa: 669 78 27 01.

Arrasaten etxebizitza konpartitu baten logela bila nabil. 627 82 00 25.

Bergara. Pertsona bat behar dut etxea osatzeko. 80 metro koadro ditu etxeak, ondo jantzita dago eta herriaren erdian dago. Logela handiduna da. Prezioa: 165 euro, gehi argi eta telefono gastuak. Joseba. 676 58 64 99.

Eskoriatza. Logelak errentan ematen dira sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 645 70 36 63.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Erguin kaleko 24. zenbakian dagoen garajea salgai. 41 metro karratu eta ganbara ditu. Deitu telefono honetara: 665 73 56 60.

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA.
943 78 22 80
665 72 24 46

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea ematen da errentan Zigarrolan. 629 42 26 54.

Arrasate. Otalora kalean garaje itxia. 22:00etatik 22:30era deitu, mesedez. 656 75 52 28.

Bergara. Ibargarai kalean garajea errentan. Telefonoa: 627 90 74 48.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Erdialdean dagoen lokal komertziala alokagai. 946 81 53 69.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasaten etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko emakume bat behar da. 696 54 24 20.

Bergara. Arratsaldeetan, 17:00etatik 19:00etara, hamar eta sei urteko bi ume zaintzeko pertsona behar da. 943 76 06 69.

Bergara. Emakumea behar da goizez, bi orduz, etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 76 27 04.

Bergara. Gazte elbarritua zaintzeko emakume bat behar da, orduka. 943 76 49 72.

402. ESKAERAK

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 679 71 34 37.

ARRASATE Emakumea gertu dago eguazten goizetan etxeren bat garbitzeko, eta astelehenetik ostiralera, 20:00tik aurrera, tabernaren batean lan egiteko. 943 77 07 98.

Bergara. Neska esperientziadunak jende nagusia zainduko luke arratsaldeetan. 605 75 75 08.

Bergara. Esperientziadun neska euskaldunak haurrak zainduko lituzke. Itxaro. 645 00 62 79.

BERGARA

AUTOZERBITZUA EDO BULEGOTARAKO LOKALA ALOKATZEN DA JABEA ERRETIRATZEN DELAKO.
943 76 05 32

Bergara. Neska euskalduna prest garbiketa lanak egiteko. 627 07 41 96.

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusi bat zaintzeko prest dago emakume bat. 943 08 12 80.

Debagoiena. Bi emakume prest etxeko lanak egin eta bertan bizitzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Ana eta Gladys. 649 59 86 04 edo 666 21 88 95.

Debagoiena. Emakumea gertu hainbat lanetarako: umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin eta abar. 600 73 56 14.

Ekonomian lizentziatuta dagoen neska bat gertu dago administrazioan, kontabilitatean edo ekonomia alorreko antzeko lanetan lanean hasteko. Marisa. 657 70 03 22.

Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketa lanak egiteko, edo umeak eta adinduak zaintzeko. Teresa. 618 08 27 84.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, edo umeak eta adinduak zaintzeko. Teresa. 618 08 27 84.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernari edo sukaldari lana egiteko edo umeak eta adinduak zaintzeko. Beatriz. 943 71 21 15.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernari edo sukaldari lana egiteko edo umeak eta adinduak zaintzeko. Doralia. 650 58 81 40.

ARRASATE

ERDIALDEAN DAGOEN ILE APAINDEGIA ESKUALDATZEN DA. JARDUNEAN DAGO. PREZIO ONA.
943 79 18 06
658 71 25 67

Neska lanerako gertu: garbiketak, zerbitzari, sukaldari edo pertsonak zaintzeko. Paula. Telefonoa: 626 56 80 73.

Neska eskaintzen da tabernari lanak egiteko edo umeak eta adinduak zaintzeko. Gina. 676 69 20 44.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeleseko eskolak. 943 79 03 83.

Aretxabaleta. Ingelesezko eskola partikularrak. 943 79 03 83.

Arrasate. Neska euskalduna prest ingelesezko klaseak emateko. Uda partean ere bai. 686 82 62 92.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 1.9 autoa salgai. 110 cv. Diesela, aire girotua. 667 73 11 63.

Audi A4 autoa salgai. TDI 1.9 110 cv. Diesela. Bost abiadura. Aire girotua. 667 73 11 63.

California furgoneta salgai. 2000. urtekoa. 600 43 21 21.

Citroen Xantia Activa autoa, turbodiesela. 6 urte, oso ondo. 687 04 39 11.

Irlandara!

Anima zaitez uztailean irlandar familia batekin elkarbizitzera!

Informa zaitez :
Ferrerias 26 behea
Tel.: 943 77 06 83
www.81x.com/parlance/irlanda

Citroën Xsara 19TD Break autoa salgai. 90 zp. 4 airbag. 2000. urtekoa. Ondo dago. 690 30 01 47.

Debagoiena. Estra asko dauzkan autokarabana salgai. 679 44 60 75.

Fiat Coupe. 1816 balbula. 1998koa. Egoera oso onean. 220 zaldien pareko ekipamendua, kirol esekidura, 17 hazbeteko gurpil-hagunak eta osagarri gehiago. 8.000 euro. 629 17 52 03.

Ford Mondeo autoa. 1.8. 16 balbula. CLX modeloa. 91.000 kilometro. Oso egoera onean. 685 76 22 13.

Galloper Santano Comfort 2.0 autoa. 5 urte. SS-BG matrikula. 678 05 70 81.

Gas-Gas enduro motorra salgai. 250 cm³. 2002. urtekoa. Matrikulatua. Egoera onean. Jon. 943 79 23 34.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF. Egoera onean. Telefonoa: 652 77 71 08.

Honda CRF 450 R salgai. 2003. urtekoa. Ihes-hodia eta transmisioa aldatuta dauzka. Oso ondo zainduta dago, eta prezio onean saltzen dut. 625 70 43 20.

Honda Transalp 600 V motorra salgai. Oso ondo dago. Gauez deitu. 946 23 19 26.

Honda XR 400 motorra salgai. 2001ekoa da eta ondo zainduta dago. 3.600 eurotan. 670 29 60 12.

KTM 250 Ext motorra salgai. SS-AY matrikula, gurpil berriak, ondo dago. 3.000 euro. 679 24 89 72.

Peugeot 306 HDI auto familiarra salgai. Lo egiteko prestatuta. 660 54 77 55.

Suzuki Samurai mendiko autoa salgai. Luzea. 1.300 motorra. Zuntzezko sabaia. 1989koa. 3.000 euro. Deitu 20:00etatik 22:00etara. 639 13 11 49.

Thunder Tiger Saxo 4x4 auto telegidatua salgai. Gasolinarekin dabil eta atzeko esekidura aldatuta dauka. Prezio onean. Mikel. Telefonoa: 943 77 16 36.

Volkswagen Golf TDI autoa salgai. 2003koa. Osagarriak. Ondo dago. 679 62 69 64.

Yamaha SR 250 Special motorra salgai. 2000. urtekoa. 5.000 km. 1.950 euro. 669 36 22 26.

Yamaha SR 250 Special motorra salgai. 2000koa. 5.000 km. Ia berria. 1.950 euro. 669 36 22 26.

Yamaha Virago motorra, 535 cc-ko zilindrada, 14.000 km, sei urte. Oso ondo dago. 670 43 17 23.

Yamaha WR. 250 4T. BRR matrikuladuna, 2002koa. Oso egoera onean. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

603. ALOKATU

Ezkontzetarako Volkswagen Beetle Speedster Cabriolet auto klasikoa alokatzen dut. Deitu gauez. Telefonoa: 617 74 99 95.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Artzain txakurkume alemanak salgai. 677 98 30 60.

Txakurkumeak. Spaniel arrazakoak salgai. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

704. BESTELAKOAK

Bergara. Txakurra edukitzeko txabola salgai. 943 76 99 76 edo 655 74 80 07.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Arkua. Arku-tirorako. Poleaduna. Egoera onean eta merkea. 653 70 83 99.

Bizikleta merkea, estreinatu barik. 943 76 40 82.

Emaztegai soinekoa salgai daukat. Marfil kolorekoa. 42-44 neurrikoa. 480 euro. Telefonoa: 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

Hagunak salgai, Volkswagen Corrado autoarenak. 16 hazbete, bost zulo, 215-40. Hiru goma opari. 943 76 40 82.

Informatika. Agfa Arcus eskanerra eta 17"ko ordenagailurako pantaila. 943 76 99 76 edo 655 74 80 07.

Kanpinerako karro-denda salgai. 943 78 70 52.

Patinak. Saltoka ibiltzeko modukoak. 943 78 70 52.

Prijon Canyon piragua. Plastikozkoa, 3,3 m. Guztiz hornituta: neoprenozko zulo estalkia, arrauna, salbamenduko txalekoa eta abar. 656 77 82 81.

Realeko bizikleta oso egoera onean. 699 28 29 28.

Soinu txikia salgai. Hiru ahots ditu. 630 26 01 05.

Sukalderako labea. Berria, 90 cm neurrikoa. Prezio interesgarria. 627 90 74 48.

Umeendako bizikleta salgai, BH markakoa. Atzealdean jartzen diren gurpiltxo eta guzti. Egoera onean dago, eta merke. 943 77 00 43.

802. EROSI

Bergara. Etxe barruko egurrezko ate bat erosiko nuke, 2,5 x 83 x 209 cm. Jose. 615 76 83 48.

Oñatin bi edo hiru hektareako lur saila erosi nahiko nuke. 652 71 76 81.

803. EMAN

Bilduma bi opari. Pospolo kaxen bilduma handia eta postalen bilduma ditut emateko. 665 73 59 83.

806. GALDU

Bergara. Pesako geltokitik Bolura mobila galdu zaio neska bati. 943 76 28 93.

AIPAGARRI

Ane Loidi
ARETXABALETA

Koldo Mitxelenak hasitako Orotariko Euskal Hiztegia osatua dago. Hemezortzi urtetako argitaratze prozesua amaituta, kalean da euskarak sekula izan duen paperezko hiztegirik zabalena. Lan talde handi batek jardun du hiztegia gertatzen eta tartean izan da Ane Loidi aretxabaletarra ere.

Julian Alkorta
GETARIA

Euskalan elkarteak urteko batzarra egin du asteon eta bertan esker oneko oroigarri bat eman diote Julian Alkortari. Lan munduan euskararen gaineko sentsibilizazioa bultzatzea da Euskalanen helburua, eta Alkorta izan zen elkarte honetako aitzindarietako bat.

Juan Carlos Irizar
OÑATI

Juan Carlos Irizar konpositore oñatiarrak disko berria kaleratu du. *Menditik itsasora-De la montaña al mar*, mendiarekin eta itsasoarekin harremana duten lagunei eskainitako 18 piezaz osatuta dago. Itsasoa eta mendia oso garrantzitsuak dira Irizarrentzat, eta hori agertu nahi izan du lanean.

HILDAKOAK

Dominica Olalde Beitia. Oñatin, Apirilaren 20an. 90 urte.

Maria Sierra Sanchez. Bergaran, Apirilaren 20an. 72 urte.

Valentin Martinez Saez. Arrasaten, Apirilaren 21ean. 71 urte.

Teofilo Beltran de Guevara Palacios. Arrasaten, 22an. 95 urte.

Manuel Fernandez Benitez. Arrasaten, Apirilaren 22an. 90 urte.

Maria Paz Etxeberria Arozena. Arrasaten, 22an. 79 urte.

Manuel Fernandez Benitez. Arrasaten, Apirilaren 22an. 90 urte.

Maria Elorza Goitia. Oñatin, Apirilaren 23an. 80 urte.

Felix Urtzelai Bikuña. Oñatin, Apirilaren 23an. 59 urte.

Jose Maria Gallastegi Altube. Bergaran, Apirilaren 23an. 61urte.

Donato Ormazabal Erostarbe. Bergaran, Apirilaren 24an. 86 urte.

Felipe Velez de Mendizabal Azurmendi. Arrasaten, 25ean. 83 urte.

Juana Arriola Oregi. Bergaran, Apirilaren 25ean. 72 urte.

Juan Untzueta Oteiza. Arrasaten, Apirilaren 26an. 84 urte.

Patricio Orobengoa Beitia. Arrasaten, Apirilaren 26an. 72 urte.

Jesus Maria Salinas Lander. Aretxabaletan, 23an. 60 urte.

Benito Agiriano Arriola eta **Jacinta Bergaretxe Errasti** eskoriatzarrak 1955eko apirilaren 21ean ezkondu ziren. Mezarekin eta bazkaria eginda ospatu zuten 50. urteurrena domekan, apirilaren 24an. Zorionak familiako guztien partetik.

Ignacio San Jose eta **Andresa Loiti** eta **Joaquin Esnaola** eta **Joxepi Loiti** bergararrak Santa Marinako elizan ezkondu ziren orain dela 50 urteko maiatzaren 14an. Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan familiakoekin ospatuko dute. Zorionak etxekoen partetik!

ESKER ONA

Vicenta Lizarralde Zabaleta

Donostian hil zen 2005eko apirilaren 19an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko apirilaren 29an.

ESKER ONA

Ane Miren Telleria Iñurritegi

Oñatin hil zen 2005ko apirilaren 20an, 22 urte zituela.

Beti gogoan izango zaitugu.

Zure txikitako gelakideak.
Oñatin, 2005ko apirilaren 29an.

ESKELA

Patri Orobengoa Beitia

Goienako errektore kontseiluko kide Aitor Orobengoaren aita.

Arrasaten hil zen 2005eko apirilaren 26an, 72 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2005eko apirilaren 29an.

ESKELA

Amaia Muguruza Mayner

1951.11.18 - 2005.04.25

Ez da erreza bizi guztiko lagun bati agur esatia. Zure irriparra eta baikortasuna gurekin laga arren, kostako jaku bihotzeko tristura hau kanporatzia.

Bergarako lagunak.
Bergaran, 2005eko apirilaren 29an.

ESKER ONA

Maria Pilar Aginalde Arenatza

2005eko apirilaren 23an hil zen, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2005eko apirilaren 29an.

www.goiena.net-eko

BLOG KOMERTZIALAK

Zure negozioa Interneten egoteko modu errazena eta merkeena

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak
Posta-e: azabarte@goiena.com
Tel.: 943 76 92 70

IRAGARPENA

ZAPATUA, 30 / Max.: 30º / Min.: 14º/

Zerua hodei gutxirekin egongo da. Goizaldean, baina, tarteka erdi mailako hodeiak egongo dira eta lanbroa egingo du. Arratsaldean, barnealdean batez ere, bero-hodeiak sortuko dira eta ekaitzak sor daitezke. Tenperatura minimoak eta maximoak zertxobait igoko dira.

DOMEKA, 1 / Max.: 28º / Min.: 14º/

Zerua hodeitsu egongo da. Goizaldean lanbroa egingo du. Arratsaldean, barne aldean bero-hodeiak sortuko dira eta ekaitzak sor daitezke. Hegoaldeko haize ahula ibiliko da, tarteka gogor. Tenperatura zertxobait jaitsiko da, baina gutxi.

ATMOSFERA

Atmosferaren hedadura eta osagaiak

Atmosfera Lurra inguratzen duen gasezko tapakia da. Altuera aldatu ahala batez besteko tenperatura ere aldatu egiten dela kontuan izanik, lau geruza bereizten dira nabarmen.

Lurrak grabitate-indarrari esker eusten dio sarreran aipatutako tapakiari, bere inguruan; lurrazaletik gertu lortzen du atmosferak dentsitaterik handiena, eta altitudean gora egin ahala, arinduz joaten da, harik eta planeten arteko gasarekin nahastu eta bereiztezina egiten den arte.

Atmosferan, lau geruza bereizten dira: lehenengo, troposfera dugu. Troposfera lurrazaletik gertuen dagoen geruza da, 10 kilometro ingurura iristen da. Geruza horretan gertatzen dira eguraldiarekin gehien lotzen diren fenomeno fisikoak. Troposferatik hurrena estratosfera dago. Estratosferak 10 kilometroko altueratik 100 kilometroraino tartea hartzen du. Azkenik, mesosfera eta termosfera ditugu. Osagaiei dagokienez, atmosferaren %99 oxigenoz eta nitrogenoz osatutako nahasketa bat da. Gainontzeko ia gehiena argoia eta karbono dioxidoa da.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Enpresako mailegu / *Izena		Erretegi / Baia l uzanga		Gorputz atala	
	Donari, golardo / Jadanik					
Hitz gutxitan azaldu / Eztabaida zaratatsua		Elikatzen / Latorrizko ontzia				
Herri hizk., bada / Suak harturik		Nafarroako herria / Anfibio mota				Goiko tokira
				Kilogramo / Dir-dir		
Musika estilo / Niobioaren ikurra			Du, berari / Toki horretan			
	Maiztasun partikula / Trebe, iaio				Roentgen / Orbana, orina	
Kasik / *Deitura		Zailtasun handiz / Eguzki				
						Zakur
Toka, du / Intsektu mota			Arnas ezak hil / Tona			

BILABILA7





UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

PARISEN GERTATUA

Emakume bati diru-zorroa ostu zioten poltsatik eta konturatu orduko polizia-etxera joan zen, salaketa jartzera.

Handik gutxira, ordea, kafea hartu zuen tabernan ahaztu ote zuen otu zitzaion. Badaezpada ere, tabernara hurbildu eta sartu orduko zerbitzariak diru-zorroa bertan ahaztua zuela adierazi zion.

Atzera berriro polizia-etxera zorroa azaldu zitzaiola esatera. Eta hori aipatzean, hara zer-nolako erantzuna jaso zuen:

– Lastima! Lapurretaren ardura bere gain hartu duten bi arabiar baditugu eta!

HORTZOREA

Tolosarra beti berandu iristen zen bulegora. Goiz batez, arduraduna bere onetik atera eta iritsi orduko zuzendaritza bulegora azal zedin agindu zuen. Heldutakoan:

– Badakit puntualitatearekiko duzun harremana oso pertsonala dela, eta orduan iritsi baino lehenago, nahiago izaten duzula auto barruan bueltaka ibili.

– Aitortu behar dut hori egia dela, baina gaur goizekoa desberdina izan da; istripu bat izan dut —argitu du tolosarrak—. Komunean hortzetako pastaren tutua zapaldu dut.

– Eta hori dela eta iritsi al zara gaur ere ordubete berandu?

– Ez! Baina ateratako pasta atzera tutuan sartzen saiatu naiz!

SOLUZIOAK

R	A	Z	T	I	L	U	E
O	T	I	●	K	I	D	●
●	I	R	E	B	L	A	
A	T	O	●	A	I	●	
R	●	I	H	O	●	B	N
O	I	D	●	P	A	R	●
G	K	●	N	A	T	U	S
●	O	L	E	●	A	B	●
A	T	I	P	A	L	A	K
N	E	T	A	J	●	L	●
I	R	A	S	●			
O	R	D	E	P			
●	E	●	J	●			



Maiatzaren 2a: 041 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, maiatzak 2, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Maiatzaren 2ko sariak

- **'LAUBURUA'** mahai jokoa, Argia argitaletxearen eskutik.

EIBAR-ALMERIA
futbol partidua ikusteko sei sarrera.
(Saridun bakoitzarendako bi)

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

040 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Bedarreta taberna (Aretxabaleta)
- Xabier Aiastui (Arrasate)

Argiaren 'LAUBURUA' jokoa.

- Maria Jesus Laskurain (Bergara)

‘Eguzki lore’

EGUBAKOITZA, 29 / **21:30 eta 23:00**

Iratiko baso bakartian zehar eramango gaituen atala

Eguzki lore erreportaje sailaren atal hau *Irati eta Aezkoa* izenburupean dator . Baso bakartiaren handitasuna eta han bizi diren pertsonak: arotzak, almadiazainak, eta abar. Gainera, ibilalditxo bat egingo dugu Aezkoa bailaran zehar.

‘Ilunpean’

EGUBAKOITZA, 29 / **21:00 eta 22:30**

Afrika Bibang musikariarekin egingo du berba Oihanak

Bilbon jaio eta Algortan bizi den musikari gaztea dugu Afrika. Askorentzat ezaguna aurtengo Korrikan *Ni ere bai!* esan zuelako. Txikitatik musika beltza entzun izan du etxean eta eragin horiekin egiten du bere musika.

‘Derbia’

ZAPATUA 30 / **20:00**

Bergara eta Aloña aurrez aurre Agorrosinen

Puntu garrantzitsuak izango dituzte jokoan Aloña Mendik eta Bergarak. Bergarak ezinbestekoak ditu hiru puntuak bizirik jarraitzeko. Oñatiarrek, berriz, irabazi egin nahiko dute behin betikoz mailari eusteko.

‘Abesbatza’

MARTIZENA / **21:00 eta 22:00**

Ganbara abesbatzaren X. urteurreneko kontzertua

Oñatiko Ganbara abesbatzak hamar urte egin dituela eta, kontzertua antolatu zuten Oñatiko pilotalekuan. Maila handiko emanaldia izan zen, eta horren testigu izan genituen Goiena Telebistako kamerak.

TELEBERRIAK

Pedro Subijanak saio berriak hasiko ditu maiatzean ETB2n

Saio berriak hasiko ditu ETB2n Pedro Subijana sukaldariak, maiatzaren 3an. Hamalaugarren denboraldia izango du *La Cocina de Pedro Subijana* saioak. Eguerdiro, 12:00etan eskainiko da. Horrez gainera, sukaldean erraz egiteko errezetak biltzen dituen DVD bilduma jarri du salgai Subijanak. DVD bilduma horretan, erraz prestatzeko errezetak jaso dira. DVD bakoitzean zortzi errezeta daude.

Telebista digitala dauka populazioaren %20ak

Espainiako Estatuan, %20k dauka telebista digitala, eta batez beste 32 euro gastatzen ditu hilean saio bereziak ikusteko, terminalaren alokairua eta oinarrizko paketeagatik ordaintzen duenaz gain. Telebista digitala daukaten gehienek, futbola (%77) eta filmak (%55) ikusten dituzte telebista digitalean. Film pornoak ikusteagatik ordaintzen dutenak gutxiago dira: %2,4.

CSI telesaila lider beste behin

CSI saioaren lehenengo atala, Las Vegaskoa, da ikusiena astelehen gauetan Euskal Autonomia Erkidegoan. Telebista aurrean daudenen %36,6ak jarraitu zuen telesaila astelehenean. Hala ere, egun horretako saiorik ikusiena ez zen hori izan, Argiñanorena baizik, hau ere Tele5-n. %40,7k ikusi zuen eguerdian.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Apirilaren 29tik maiatzaren 5era

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 29	ZAPATUA 30	DOMEKA 1	ASTELEHENA 2	MARTITZENA 3	EGUAZTENA 4	EGUENA 5
13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Behazulo** 15:00 **Auñamendietan** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean** 21:30 **Eguzki lore** 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Eguzki lore** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Baneki** 12:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 13:10 **Baneki** 13:40 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:00 **Ilunpean** 14:30 **Auñamendietan** 15:00 **Filma:** Miserableek 16:00 **Eguzki Lore** 18:30 **Jaun ta jabe** 17:00 **Klip@** 17:30 **Behazulo** 18:00 **Debarri:** Antzuola 19:00 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 20:00 **Derbia:** Bergara-Aloña 21:30 **Emisio amaiera**	11:05 **Filma:** Miserableek 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 12:55 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:10 **Ilunpean** 13:45 **Auñamendietan** 14:15 **Eguzki lore** 14:45 **Filma** 15:30 **Derbia** 17:10 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 18:15 **Klip@** 18:30 **Baneki** 19:00 **Jaun ta jabe** 19:30 **Auñamendietan** 20:00 **Marrazki bizidunak** 20:45 **Baneki** 21:00 **Emisio amaiera**	11:05 **Filma:** Miserableek 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 12:55 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:10 **Eguzki lore** 13:45 **Ilunpean** 14:15 **Auñamendietan** 14:45 **Filma** 15:30 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 18:45 **Klip@** 17:00 **Baneki** 17:30 **Jaun ta jabe** 18:00 **Auñamendietan** 18:30 **Marrazki bizidunak** 19:15 **Baneki** 19:45 **Derbia** Bergara-Aloña 21:00 **Emisio amaiera**	13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Eguzki lore** 15:00 **Ilunpean** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ganbara Abesbatza** 22:00 **Berriak** 22:30 **Ganbara Abesbatza** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ganbara Abesbatza** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Auñamendietan** 21:30 **Jaun ta jabe** 22:00 **Berriak** 22:30 **Auñamendietan** 23:00 **Jaun ta jabe** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Auñamendietan** 15:00 **Jaun ta jabe** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Patrulla 03 21:00 **Baneki** 21:30 **Behazulo** 22:00 **Berriak** 22:30 **Auñamendietan** 23:00 **Behazulo** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:30 **Eguzki lore**	20:00 **Bergara-Aloña**	18:30 **Baneki**	13:20 **Baneki**	21:00 **Ganbara Abesbatza**	21:30 **Jaun ta jabe**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

KAMERAAURREAN

“Alzheimer gaixo batekin sekula pasa ditudan oporrik onenak egin nituen AFAGIko programari esker. Gaixoarengandik apur bat askatu eta esperientzia ederra izan zen”.

Serapi Arantzabal / AFAGIko kidea
‘Berriak’ (2005/04/27)

“Presoen eta iheslarien eskubideen aldeko defentsa gizarte honetako edozein pertsonaren ardura da. Horregatik jarri dugu martxan egin zaitez Etxerat-kide kanpaina”.

Saioa Urrutia / ETXERAT
‘Berriak’ (2005/04/27)

TELEBEGI/ Eneko Azkarate

Ilunetan

Euskal Telebistako euskarazko katean elkarrizketa saioak daude boladan; elkarrizketa intimoak, jeneralean hedabideetan ateratzen ez direnei egindakoak. Bi saiotan ikusi ditugu: Dani Arizalaren *Beste Gu*-n eta Pello Zabalaren *Buruz buru*-n. Azken hau da hasi berria. Bi lagun, elkarrizketa egilea eta elkarrizketatua. Ilunetan biak. Gustura jarraitzen da, elkarrizketatua ezagun samarra denean batez ere.

Kontua da horren moduko saio bat badaukagula Goiena Telebistan; *Ilunpean* izenekoa eta Oihana Elortzak aurkeztua. Saioa arrakastatsua da eta bigarren urtea du pantailan —lehenago Aintzane Gardokiren eskutik—. GOITBkoa gehiago gustatzen zait, biek estilo eta estetika antzekoa erabili arren. Denondako ezagunak edo ospetsuak diren Euskal Herriko pertsonak gertutik ezagutzeko aukera ematen digu Oihanak, ezkutuko kontuak azaleratuz. Hortxe dago saioaren arrakastaren gakoa; eta, elkarrizketa egilearen abilezian ere bai. Horretan ere nahiago dut Oihana.

Gaitasuna

Urtero-urtero erronka berriak ikasle guztiei eta bakoitzari erantzuteko.

- **BATXILERGO ELEANITZA** berria!
- ARTE BATXILERGOA
- BATXILERGO FORMATIBOA
- ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA BATXILERGOA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA

aurrematrikula epea zabalik:
apirilaren 25etik
maiatzaren 6ra

Informa zaitez!
902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

ANTZUOLA
- Gabilondo Arregi harategia (A)
  Kalebarren 14

ARAMAIO
- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
  Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE
- Landaluze harategia (A)
  Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
  Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A)
  Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
  Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
  Antxo Abarka 1

BERGARA
- Andres Mujika harategia (A)
  Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
  Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
  Espoloia 12

ESKORIATZA
- Zubia harategia (B)
  Santa Ana 11

OÑATI
- Antxon harategia (A)
  San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B)
  Portu 2
- Garai harategia (A)
  Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
  Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten haratagiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
BAIMENDUTAKO HARATEGIA
EUSKO LABEL KALITATEA

EUSKAL OKELA

" Bertan jaiotako eta modu naturalean hazitako ganadua"

Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL KALITATEA

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2005eko apirilaren 29a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Jokin Bengoa/ Lorezaina

Oraintxe da sasoia loreak eta landareak aldatzeko?

Negua hotza eta gogorra izan da, lurra oso bustita egon da eta atzeratu egin da landatzeko sasoia. Berez, lehenago hasi behar genuen landare berriak sartzen, baina tira.

Balkoiak apaintzeko loreak erosten, behintzat, makina bat jende dabil.

Normala da, udaberrian gaude eta eguraldi ona egin du azken egun hauetan.

Lorategietakoak ere orain aldatuko dituzue?

Tulipanek eta beste erraboilek ondo iraun dute negua. Oraindik kolore bizia dute eta datorren hilean aldatuko ditugu; udazkena arte irauten dutenak landatuko ditugu maiatzean.

Zein lora dira udaberri eta udakoak?

Orain arte primulak, pentsamenduak, ziklamenak eta erraboilak egon dira.

Udako loreetan, berriz, aukera gehiago dago: salvia, petunia, begonia, alisum... Landare iraunkorrak erabiltzen ere hasi gara, lagungarri moduan. Koloreetan aukera handia dago, baina horrelakoekin landareen aukera zabaltzen dugu, neurri aldetik, adibidez.

Lorategien diseinua ere zeuek egiten duzue?

Bai. Eguzkitan edo itzaletan dagoen eta lorategi horren funtzionaltasunaren arabera diseinatzen ditugu.

Errespetatzen ditu jendeak lorategiak?

Baietz uste dut. Desagerpen misteriotsuak ere izan ditugu, baina orokorrean errespetatzen dituzte.

Non egiten duzue zuek lan?

Oñatiko Udalerako egiten dugu lan, adibidez, eta Oñatiko berdeguneak geuk mantentzen ditugu. Baita eskualdeko enpresa batzuetan eta etxe partikularretan ere.

Urte guztian izaten duzue lana?

Sasoi honetan, urria bitartean, neguan baino lan gehiago izaten dugu, baina urte guztian dago zer edo zer egiteko, ez zaigu lanik falta.

Nola apaintzen dituzte lorategiak enpresek?

Batzuek neurrien eta moten arabera, eta beste batzuek, hainbeste begiratu gabe. Bakoitzak ikusten du ze aukera duen eta zenbat gastatu nahi duen.

Ikusten dena da lehen baino garrantzi gehiago ematen diotela enpresek berdeguneei.

Noiz hasi dira herriak zein enpresak lorategiak apaintzeari garrantzia ematen?

Orain hamar bat urte, gutxi gorabehera. Frantzian eta Ingalaterran beste kultura bat dute eta han garrantzi gehiago ematen diote.

Ekiloren hartzen dituzue landareak?

Hazitegietara ere joaten gara landareak ikustera, baina hementxe egiten ditugu eskari gehienak, bai.

Esku ona behar da?

Lan mekanikoa ere egiten dugu, baina esku ona baino gehiago, itxurak bistara duen efektua ikusi behar da, gustua behar da.

"Orain hamar bat urtetik hona ematen diote garrantzia berdeguneak apaintzeari herriek zein enpresek"

"Hazitegietara ere joaten gara landareak ikustera, baina Ekiloren eskatzen ditugu"

"Lan mekanikoa ere egiten dugu, baienuen esku ona baino gehiago, gustua behar da"

► *Aretxabaleta/ 40 urte / Lore Lan enpresakoa*

PIPERRAUTSA

Neska-baloi

Lagun bat etorri zait azaltzera nola dabiltzan antolatu guran torneo bat Arrasaten, nesken saskibaloia bultzatzeko. Maiatzean, lau talde ekarri nahi dituzte, goi mailakoak, eta egun bakarrean —goiz eta arratsalde— torneoa jokatu Iturripen. Egitaraua hain laburra izanda, aurrekontua xumea da, baina lagunak dio kostatzen ari zaiela 3.500 euro juntatzea.

Emakumezkoen kirola, oro har, neke handiz ari da egiten aurrera. Ezin ahaztu iragan hurbileko debekuak eta mespretxuak, mila modutako trabak, neskek ez zezaten kirolik egin. Ezin esan gaur arazoa gaindituta dagoenik, ez guztiz eta ez guztiongan. Ezin espero berez konponduko denik berdintasun auzi bat.

Gogora datorkit boladan dagoen homosexualen ezkontzarena. Borroka gogorra izan da, baina helburua ez zen ezkontza instituzio gisa, helburua zen sexu joera ezberdinentzat aukera berdintasuna.

Beste horrenbeste politikan. Berdintasunaren lege berriak behartu ditu alderdiak zerrenda orekatuak egitera eta emaitza berehala iritsi da: Eusko Legebiltzar berrian, gehiago dira emakumezkoak (38) gizonezkoak baino (37), gizartean bezalatsu.

Emakumeen kirolean ere, gizartearen jomuga nagusia da sexuen arteko aukera berdintasuna. Eta berdintasunera bidean, behar dira bultzada bereziak. Mota askotakoak. Adibidez, nesken saskibaloi torneo hau Arrasaten. Bultzatu zuk ere.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa



Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
Labegaraieta Industrialdea BERGARA.
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.